

Partaidetzazko Aurrekontuak

AZKEN TXOSTENA

CIMAS Observatorio Internacional de Ciudadanía y Medio Ambiente
Sostenible

ELHUYAR Fundazioa

EMUN Euskara eta Berrikuntza Soziala

ENEA Autore Aholkularitza

FARAPI Antropología Aplicada



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Gipuzkoa



elhuyar

emun

Enea

CONSULTORÍA DE AUTOR EN SOSTENIBILIDAD
IRAUNKORTASUNERAKO AUTORE-AHOLKULARITZA



2014ko abendua

AURKIBIDEA

- 0. SARRERA (p. 2)
- 1. TESTUINGURUA (p. 4)
- 2. PROZESUAREN EZAUGARRIAK (p. 18)
 - 2.1. HELBURUAK (p. 18)
 - 2.2. PROZESU METODOLOGIKOAREN DESKRIPZIOA (p. 18)
 - 2.2.1. PROZESUAREN ATALAK (p. 18)
 - 2.2.2. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDU OROKORRA (p. 21)
 - 2.2.3. ESKUALDE BAKOITZEKO FUNTZIONAMENDUA (p. 29)
- 3. HERRITARREN BILERAK: PROPOSAMENAK ETA EKARPENAK (p. 52)
- 4. ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA (p. 72)
- 5. PROZESUAREN BALORAZIOA (p. 84)
- 6. GEHIGARRIAK (p. 102)

0. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere kudeaketa parte-hartzaile eta demokrazian sakontzeko politikarekin jarraiki, partaidetzazko aurrekontuak garatu ditu herritarren inplikazioa bultzatuz eta horiek aurrekontu publikoaren zati baten etorkizunean eragin dezaten. 2011-2015 legegintzaldi osoan zehar garatutako ekimen honek politika publikoen onuradunei irekitako politika-ereduan sakontzea ahalbidetzen du, baita gardentasunean, herritarrek duten Aldundiaren zereginen ezagutza eta administrazioak duen herritarren eskaera eta beharren ezagutza ere. Honen guztiaren ondorioa kudeaketa publiko eraginkorragoa izango da, benetako zerbitzu publikoa sustatuz, edozein instituzio publikoaren helburua dena. Eta biztanleria aktibo baten herritartasun kontzientziaren eraikuntza eragingo du, administrazioaren “bezero” edo “erabiltzaile” roletik “herritar” rolera pasatuz. Finean, herritartasun-eskola deritzogunaz ari gara.

20 urte exkaxetan, demokrazia parte-hartzaile eta zonaldeko garapenerako esparruetan, partaidetzazko aurrekontua eztabaidaren zentroan jarri da eta berrikuntzarako esparru zabal batean bilakatu da. Europa zein Latino Ameriketako hiri askotan txertatu dira baina jatorria 80. hamarkadaren bukaeran dauka eta Brasilen jaio zen. Zehazki, partaidetzazko aurrekontuaren esperientzia 1989an Porto Alegren (Brasil) hasi zela uste da. Ekimen honek aurrekontu publikoa herritarren partaidetzaren katalizatzaile bilakatzen zuen, udalerriaren baliabide ekonomikoen inguruan herritarrei luzatutako proposamenak bota eta erabakiak hartzeko gonbitean. Partaidetzazko aurrekontua epe motzerako helburuetan oinarrituta zegoen -udalerriko azpiegituren eta politika publikoaren hobekuntza-, biztanleriarentzako berehalako emaitza positiboekin. Gipuzkoako Foru Aldundia urrutiago joan da eta proiektuaren garapena probintzia-mailara zabaltzeko apustua egin du, eskualdeko ikuspuntuarekin lan egitea eskatzen duen esperientzia aitzindaria (Lugoko Aldundiarekin batera) eta partaidetzazko aurrekontu ia guztietan gailentzen den udalerriko ikuspuntutik haratago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialdeko 4 eskualdetan jarri ditu martxan partaidetzazko aurrekontuak 2014an, biztanleek 2015erako aurrekontuaren 2.000.000€ekin zer egin erabaki dezaten. Bidasoaldea, Oarsoaldea, Tolosaldea eta Urola Erdia izan dira, 2014ko aurrekontuan eragiteko, Urola Erdian garatutako esperientzia pilotua jarraitu dutenak. Lehenik eta behin, informazio- eta sentsibilizazio- lanak egin ziren partaidetzazko aurrekontuak zer diren azaltzeko. Hori dela eta, jarraitu den logika informaziotik hasi eta probintziarako zabalkunde progresiboa izan da; eta horregatik,

datorren urterako, eskualde gehiagotara zabaltzea aholkatzen da, eskualde guztietara zabaltzea iristeraino (Donostiakoa izan ezik, berariazko ezaugarriak baititu eta berezko partaidetzazko aurrekontuak garatzen baititu).

2014an zehar garatutako prozesuan, eragile ezberdinak txertatu dira eta lan-maila ezberdinak. Eragile instituzionalak (Foru Aldundia eta eskualdetako udalak), eragile teknikoak (Aldundiko sailak) eta herritarrak (bizilagunak, elkarteak, kolektiboak); Batzar Nagusietan ordezkaturata dauden taldeetako politikariak ahaztu gabe. Zentzu honetan, koordinazio-lan handia egin behar izan da, Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzan zentralizatuta.

1. TESTUINGURUA

ESKUALDEAREN EZAUGARRIAK: BIDASOALDEA

Bidasoaldea Gipuzkoako eskualderik txikiena da azaleran; 71,0 km²-koa hain justu ere. Ipar-ekialderantz Hendaiaarekin du muga, ekialdean Nafarroako Bortziriekin, hegoaldean Donostialdearekin eta iparraldean Kantauri itsasoarekin. Hondarribia eta Irun herriak biltzen ditu eta guztira, 76.337 biztanle ditu (2013). Geografikoki Bidasoa ibaiaren eta Txingudiko badiaren ezker aldean dago.

Eskualdearen historia, idiosinkrasia, baita ekonomia ere, mugako eskualde izatearekin lotuta dago. Horrez gain, bide-azpiegiturek ere badute eskualdearen ekonomian zerikusia, hala nola, A8 autobideak, N-1 nazionalak, N-121 errepideak (Bidasoaldea Nafarroarekin lotzen duenak), baita Irun-Hendaia lotzen dituen trenak eta Donostia Hendaia lotzen dituenak ere. Garraio-azpiegitura horiez gain, Hondarribian dagoen aireportua ere garrantzitsua da eskualdean.

Enpleguari dagokionez, Gipuzkoako langabezia-tasarik handiena duen eskualdea da Bidasoaldea: %16,3koa izan da 2014ko urrian, 6.100 langabe guztira. Bi herrien datuak bereizita, hondarribiarren %11,37 dago langabezian (925 langabetu) eta irundarren %17,6 (5175 langabetu). Izan ere, egoera ez da batere samurra eskualdean. Espainia eta Frantzia estatuen arteko muga kentzea kolpe ekonomikoa izan zen horretaz bizi zen familia irundar askorentzat. Baina horri aurre egiteko, eraikuntzaren sektorea bultzatzea erabaki zen, pisu ekonomiko nabarmena izan du sektore horrek Bidasoan, eta eraikuntzaren burbuila eta espekulazioa lehertu direnean, ondorio kaltegarriak utzi ditu eskualdean.

Gaur egungo datu ekonomikoei erreparatuta, honakoak nabarmenduko genituzke (IAE, 2014):

	Industria enpresen kopurua	Merkataritza establezimenduen kopurua	Ostatuen kopurua
Hondarribia	60	163	20
Irun	370	1079	30
Guztira	430	1242	50

DATU DEMOGRAFIKOAK

Biztanle-kopuruari dagokionez, Bidasoaldeak guztira, 76.337 biztanle ditu; Irunek 59.610 biztanle eta Hondarribiak, berriz, 16.727 (eustat 2013). Bestalde, adina eta generoaren arabera banaketa honakoa da:

	GUZTIRA			0-19 urte			20-64			≥ 65		
	guztira	G	E	guztira	G	E	guztira	G	E	guztira	G	E
Hondarribia	16.727	8.327	8.400	3.358	1.744	1.614	10.190	5.172	5.018	3.179	1.411	1.768
Irun	59.610	29.145	30.465	11.327	5.859	5.468	36.823	18.518	18.305	11.460	4.768	6.692
Guztira	76.337	37.472	38.865	14.685	7.603	7.082	47.013	23.690	23.323	14.639	6.179	8.460

(G: gizonezkoak, E: emakumezkoak)

ALDERDI SOZIOPOLITIKOAK

Ikuspegi politikoari dagokionez, honakoa da 2011ko maiatzaren 22ko udal-hauteskundearen emaitza, eskualde osoaren datuak eta herriz herrikakoak kontuan izanda:

	GUZTIRA				EAJ		BILDU		PSE-EE/PSOE		PP		EZKER BATUA-BERDEAK		Besteak		ARALAR	
	Zentsua	abstentzioak	baliogabeak	Zuriak	botoak	zinegotziak	botoak	zinegotziak	botoak	zinegotziak	botoak	zinegotziak	botoak	zinegotziak	botoak	zinegotziak	botoak	zinegotziak
Hondarribia	12.812	4.991	131	246	2.788	8	2.066	5	745	2	613	1	193	-	655	1 (Hamaika-bat)	384	-
Irun	46.859	20.765	475	865	4.583	5	4.406	5	7.904	9	4.393	5	1.556	-	1230	-	682	-
Guztira	59.671	25.756	606	1.111	7.371	13	6.472	10	8.649	11	5.006	6	1.749	-	1.885			

Irunen PSE-EEK du alkatetzea eta Hondarribian, aldiz, EAJk.

INGURUMENeko DATUAK ETA DATU GEOGRAFIKOAK

Azalerari dagokionez, Bidasoaldea Gipuzkoako eskualde txikiena da. Esan bezala, 71,0 kmkoa da; 42,40 km² Iruni dagozkio eta 28,6 km² Hondarribiari. Irun Gipuzkoako herririk populatuena da Donostiaren ondotik eta eskualdearen barnealdean dago kokatua; Hondarribia, aldiz, badiaren ondoan dago. Bi hiriek gune jarrai urbanizatua osatzen dute.

Bidasoaldean zenbait naturagune daude, baina horietako batzuek babes-neurri bereziak dituzte. Izan ere, Industria eta etxebizitzetaz betetako ingurua izan arren, ingurumen aberastasun handiko eskualdea da Bidasoaldea. Horren adierazle dira Eusko Jaurlaritzak 2013an bertako hiru eremu KBE Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu izana: Aiako Harria, Jaizkibel eta Txingudi-Bidasoa. Eskualdeko babes bereziko guneen azalera 23,29 km²-koa da; azalera osoaren % 33.

ESKUALDEAREN EZAUGARRIAK: OARSOALDEA

DATU DEMOGRAFIKOAK

Oarsoaldeko eskualdea Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatzen da eta 4 udalerriz osatuta dago: Errenteria, Lezo, Pasaia eta Oiartzun. Gaur egun, 72.223 biztanle dauzka guztira, gipuzkoar biztanleriaren %10,2a.

Ondorengo taulan ikus dezakegun moduan, Errenteria da eskualdeko udalerririk handiena ia 40.000 biztanlerekin, eta txikiena Lezo, 6.000 biztanle baino zerbait gehixeagorekin. Dena den, nahiz eta Pasaian 16.000 biztanle baina gehiago zenbatu, 4 barrutitan banatuta dago, zeinak administratiboki eta geografikoki berezituta (Antxo, Donibane, Trintxerpe eta San Pedro) daude eta bakoitzak nortasun propioa dauka. Oiartzun da eskualdeko landa-eremu handiena duen udalerria, zabalera handikoa eta auzo txiki anitzetan banatuta skabanatuta dagoena.

	Guztira	%	% emakumeak	% gizonak
Errenteria	39.758	55	51	49
Lezo	6.121	8.5	50	50
Pasaia	16.287	22.5	52	48
Oiartzun	10.057	14	50	50

Hona hemen udalerririk bakoitzeko biztanleriaren datuak sexua eta adinaren arabera:

Errenteria

Guztira	0 - 19	7.256
Gizonak		3.738
Emakumeak		3.518
Guztira	20 - 64	24.047
Gizonak		12.169
Emakumeak		11.878
Guztira	>= 65	8.455
Gizonak		3.596
Emakumeak		4.859

Lezo

Guztira	0 - 19	1.207
Gizonak		618
Emakumeak		589
Guztira	20 - 64	4.026
Gizonak		2.049
Emakumeak		1.977
Guztira	>= 65	888
Gizonak		385
Emakumeak		503

Pasaia


Guztira	0 - 19	2.871
Gizonak		1.423
Emakumeak		1.448
Guztira	20 -64	9.737
Gizonak		4.941
Emakumeak		4.796
Guztira	>= 65	3.679
Gizonak		1.426
Emakumeak		2.253

Oiartzun

Guztira	0 - 19	2.119
Gizonak		1.080
Emakumeak		1.039
Guztira	20 -64	6.224
Gizonak		3.136
Emakumeak		3.088
Guztira	>= 65	1.714
Gizonak		794
Emakumeak		920

ALDERDI SOZIOPOLITIKOAK

2011eko maiatzaren 22ko azken udal-hauteskundetan, Bildu izan Oarsoaldean emaitza hoberenak izan zituen talde politikoa, bai udalerri bakoitzean, baita eskualde mailan ere. Ondorengo grafikoan, talde politiko bakoitzak izandako emaitzak azaltzen dira, baita baliogabeak eta zuriak ere. Partaidetza-portzentajea %57,47koa izan zen.



Halaber, honakoak dira udalerri bakoitzeko talde politikoek izandako emaitzak, bozka-kantitatea eta zinegotzi-kopuruaren arabera.

Erreterria: %56,91eko partaidetza-mailarekin.

	EAJ-PNV	BILDU	PSE-EE/PSOE	PP	EZKER BATUA-BERDEAK	ARALAR	BESTEAK
Bozkek	2.232	6.301	4.970	1.579	952	515	653
Zinegotziak	3	8	7	2	1		

Lezo: %54,3ko partaidetza-mailarekin

	EAJ-PNV	BILDU	PSE-EE/PSOE	PP	EZKER BATUA- BERDEAK	ARALAR	BESTEAK
Bozkak	478	1.443	260	123	75	120	
Zinegotziak	3	8	3	2	1		

Pasaia: %54,03ko partaidetza-mailarekin

	EAJ-PNV	BILDU	PSE-EE/PSOE	PP	EZKER BATUA- BERDEAK	ARALAR	BESTEAK
Bozkak	1.120	2.666	1.152	668	394	207	243
Zinegotziak	3	8	3	2	1		

Oiartzun: %66,97ko partaidetza-mailarekin

	EAJ-PNV	BILDU	PSE-EE/PSOE	PP	EZKER BATUA- BERDEAK	ARALAR	BESTEAK
Bozkak	691	3.356	167	125		237	587
Zinegotziak	2	10					1

INGURUMEN- ETA GEOGRAFIA- DATUAK

Aurrerago aipatu den moduan, Oarsoaldeako eskualdea Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatzen da, Donostialdeako eta Bidasoaldeko eskualdeen artean, eta 111,9km²ko zabalera dauka, zeinetan udalerri zabalena Oiartzun den. Erreterriak 32,26km² dauzka; Lezok 8,59km²; Pasaia 11,34km²; eta Oiartzunek 59,71km².

Eskualdea Kantauri itsasora irekita dago Pasaia udalerriaren bidez nagusiki, zeina probintziako arrantza-zonalde garrantzitsuenetakoa izan den, eta gaur egun, Autonomi Erkidegorako turismorako motor indartsua den.

Hegoalderantz Nafarroarekin egiten du topo Oiartzungo nekazal-udalerriaren bidez, eta Aiako Harrietako Parke Naturala konpartitzen dute, baso- eta ingurumen- balio handikoa.

Azpimarratu beharra dago Erreterriak 50-60.hamarkadan izan zuen industria-gorakada. Horrek penintsula osoko migratzailek erakarri zituen eta udalerriko

biztanleria denbora murriztean biderkatu egin zen, bertako egunerokotasuna eraldatuz eta eguneraino aztarna utziz.

Azkenik, iparraldetik, Lezok Jaizkibelekin egiten du muga, askorentzat Pirinioetako mendebaldeko ertza dena, ingurumen- eta kultura- balio handikoa. Baina Pasaiaiko Abadiara udalerriak badu sargunea. Industrializazioan zehar, Lezoko garapen industrialia Errenteriako aktibitatera zuzenki lotuta egon da (ehundegiak, teilak eta adreiluak...); baina gaur egun, industrialde ugari dauzka, eskualdeko eta probintziako enpresa anitz hartzen dituztenak.

Orokorrean, Oarsoaldeak Donostia hiriko eragin handia jasotzen du gertutasunagatik, batez ere. Horregatik, oso ondo komunikatuta dago garraio publikoaren bidez, 3 zerbitzu ezberdin dituelarik: Lurraldebuseko autobusak, Euskotreneko Metroa eta Renfeko trenak. Halaber, Aiako Harrietako Arditurriko minetatik gipuzkoar hiribururaino doan bidegorri-sare zabala dauka.

ESKUALDEAREN EZAUGARRIAK: TOLOSALDEA


DATU DEMOGRAFIKOAK

Tolosaldea Gipuzkoako ekialdean dagoen eskualdea da. 332 km²-ko azalera du. Lurralde historikoan jende gutxien duen eskualdea da. 2013ko datuen arabera Tolosaldean 48.137 pertsona bizi dira, horietatik 23.890 dira emakumezkoak eta 24.247 gizonezkoak. Gutxi gorabehera 143 biztanle bizi dira kilometro koadro bakoitzeko.

Hauek dira Tolosaldeako biztanle kopuruaren datuak adinaren eta generoaren arabera:

Adina											
Guztira			0 - 19			20 - 64			>= 65		
Guztira	Gizonez.	Emakum.	Guztira	Gizonez.	Emakum.	Guztira	Gizonez.	Emakum.	Guztira	Gizonez.	Emaku.
48.137	24.247	23.890	10.015	5.197	4.818	29.199	15.009	14.190	8.923	4.041	4.882

Tolosaldea Gipuzkoako ekialdean kokatuta dagoen eskualdea da eta 28 herrik osatzen dute. Oria ibaiaren haranean daude eskualdeko biztanle-gunerik handienak, hau da; Aduna, Amasa-Villabona, Zizurkil, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra, Alegia eta Ikaztegieta. Etxeak eta industria-poligonoak ia jarraian dira Tolosa eta Aduna artean.



Eskualdeko udalerri garrantzitsuena Tolosa da, eta hortik datorkio izena. Historikoki beti hala izan da, eta gainera, iraganean Tolosaldeako udalerri guztiak Tolosaren zati izan ziren, pixkanaka banantzen joan ziren arte.

Gainerako udalerriak Oria ibaira isurtzen diren erreken haranetan kokatzen dira, esaterako Aiztondokoa (Asteasu erreka zeharkatua), Araxesekoa, Berastegikoa (Zelai ere deitua) edo Amezketakoa; edota Oriaren beraren ondoko haranetan. Udalerri hauek txikiagoak dira oro har.

Hau da Tolosaldeako udalerrien eta herri bakoitzeko biztanle kopuruen zerrenda:

Herria	Biztanle kopurua	Herria	Biztanle kopurua	Herria	Biztanle kopurua	Herria	Biztanle kopurua
Abaltzisketa	330	Amezketa	972	Bidania-Goiatz	525	Larraul	259
Aduna	457	Anoeta	1.872	Elduain	239	Leaburu	362
Albiztur	322	Asteasu	1.513	Gaztelu	170	Lizartza	637
Alegia	1.756	Baliarrain	131	Hernialde	352	Orendain	192
Alkiza	380	Belauntza	269	Ibarra	4.268	Orexa	122
Altzo	409	Berastegi	1.067	Ikaztegieta	464	Tolosa	18.836
Amasa-Villabona	5.882	Berrobi	564	Irura	1665	Zizurkil	2.994

ALDERDI SOZIOPOLITIKOAK

Tolosaldeako politikagintzari dagokionez, taula honetan ageri dira azken udal hauteskundeetan (2011) aurkeztu ziren alderdi politikoek eskualdean jaso zituzten boto kopuruak eta lortu zituzten zinegotzi kopuruak.

Tolosaldean, zentsua eta botoak guztira				Alderdika, boto eta zinegotzi kopurua													
				EAJ-PNV		BILDU		PSE-EE/PSOE		PP		EZKER BATUA-BERDEAK		ARALAR		BESTEAK	
Zentsua	Abstentzia	Baliogabeak	Zurik	Botoak	Zinegotziak	Botoak	Zinegotziak	Botoak	Zinegotziak	Botoak	Zinegotziak	Botoak	Zinegotziak	Botoak	Zinegotziak	Botoak	Zinegotziak
37.054	12.141	308	977	5.721	23	12.130	123	1.269	4	912	-	283	-	592	8	2.699	64

INGURUMEN, GEOGRAFIA ETA EKONOMIA DATUAK

Orografiari dagokionez, eskualde menditsua da Tolosaldea, nahiz eta Ernio eta Herniozabal izan 1.000 m-ak gainditzen dituzten mendi bakarrak. Aipagarriak dira, ekialdetik mendebalera, Uzturre (735 m), Erroizpe (802 m), Urdelar (849 m) eta Ipuliño (935 m) mendiak, eskualdearen erdialdean, Otsabio (897 m) eta Ulimendi (859 m) mendiak Tolosaldearen hegoaldean eta Ernioko mendialdea (1.075 m) ekialdean.

Hidrografia alderdiari dagokionez, ibai sare garrantzitsua du Tolosaldeak. Gipuzkoako ibai nagusiak, Oriak, igarotzen du Tolosaldeako eskualdea hegoaldetik iparraldera. Inguruko mendietatik jaisten diren erreka ugari isurtzen dute ura Oria ibaian Tolosaldean zehar: Amezketa, Araxes eta Eldua eskuinaldetik eta Otsarain, Lizarrandi, Bazurka eta Malakapio, ezkerretik. Nahiz eta Tolosaldean urak ez isuri (Andoainen isurtzen dizkio urak Oriari, Donostialdean), aipatzekoa da Leitzaran ibaia ere, Oria ibaiaren ibilbidean ur-emari garrantzitsuenetakoa duen ur-korrontea delarik. Tolosaldean sartzen da Gipuzkoan hain zuzen ere, Berastegiko Urto mendatearen inguruan, ondoren Elduain eta Amasa-Villabonako udalerriak zeharkatzen dituelarik Tolosaldean. Leitzaran ibaiaren harana Oria ibaiaren haranarekiko paraleloa da Tolosaldean, eta Uzturre-Ipuliño eta Adarra-Mandoegi mendikateen artean kokatzen da. Biodibertsitatearen aldetik, interes ekologiko handiko ingurunea da.

Klima ozeanikoa du Tolosaldeak, tenperaturak epelak dira eta giroa hezea. Landaredia asko aldatu da joan den mendeaz geroztik, papergintzaren industria zabaldu zenetik, batez ere. Pinuak nagusitu zaizkie jatorrizko harizti, pagadi eta gaztainadie. Lurraldearen latitudeak eta Bizkaiko Golkoaren erdian kokatzeak plubiometria oso altua eragiten du, tenperatura suabea eta euriaren urte-sasoia araberako banaketa. Ondorioz, ibaien erregimena uholdezkoa da, ur altuen garai batekin neguan eta agorraldi gogorarekin udako hilabeteetan.

Geografiari dagokionez, mugakide hauek ditu: ekialdean Nafarroa, iparraldean Beterri edo Donostialdea, hegoaldean Goierri eta mendebaldean Urola Kosta.

Alor ekonomikoan, eskualdea bere osotasunean hartuz gero, Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik gelditzen da biztanle bakoitzeko sortzen den Barne Produktu Gordina. Jarduera ekonomikoari dagokionez, eskualde ia erabat industrialia da Tolosaldea. Tolosaldeako enpresa sarea 700 enpresa baina gehiagok eta 15.000 langile inguruk osatzen dute. Lehen sektoreak, berriz, eskualdean sortutako balio erantsiaren % 3 ekarri zuen baina eskualdeko hainbat udalerritan (Orendainen, Orexan, Larraulen edo Baliarrainen) jarduera nagusia da, eta garrantzi handikoa Abaltzisketa, Alkiza, Elduain eta Gaztelun. Esan beharra dago, gainera, industria, beste eskualde batzuetan ez bezala, ez dela udalerri jendetsuetara mugatzen, biztanle askorik ez duten hainbat udalerritan ere Altzon, Albizturren, Belauntzan, Berastegin edota Berrobin, esaterako, industriak ekartzen baitu bertan sortutako balio erantsiaren zatirik garrantzitsuenak. Zerbitzuei dagokionez, Ibarra, Tolosa eta Amasa-Villabona dira eskualdeko zerbitzugunerik garrantzitsuenak. Turismo alorra ere indarra hartzen ari da azken urteetan eskualdean eta bi turismo bulego, bi museo eta turismo aktiboko bi gune ditu eskualdeak; 625 plazarako ostatuak daude Tolosaldean.

Alor publikoari dagokionez, Tolosaldeako Mankomunitate orokorraz gain, beste mankomunitate hauek ere badaude: Aiztondokoa, Enirio-Aralarkoa, Loatzokoa, Saiazkoa, Tolosako hiltegiaren ingurukoa eta Uli mankomunitatea. Aipagarriak dira, halaber, Lehiberri zentroa, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko eratutakoa, eta Tolomendi, Tolosaldeako Landa Garapeneko Elkarteak.

Hezkuntzari dagokionez, unibertsitate aurreko ikastetxe publiko eta kontzertatu ugari ditu Tolosaldeak, horietako gehienak Tolosan bertan, baina “eskola txikien” sare handia osatzen dute herri txikietakoek.

Eskualdean ere eragiten duten komunikabide orokorrez gain, tokiko komunikabideak errotuta daude Tolosaldean eta prentsa idatziko, irratiko eta telebistako hainbat komunikabide daude martxan: 28 kanala, Tolosaldeako Ataria, Txolarre Irratia, Galtzaundi eta Aiurri.

Mugikortasunari dagokionez, errepide sare garrantzitsua du Tolosaldeak (N-1 errepideak zeharkatzen du hegotik iparrera) eta tren eta autobus bidezko mugikortasun aukera zabala du. Era berean, aipatzekoa da eskualdea ia osorik zeharkatzen duen bidegorri sarea.

ESKUALDEAREN EZAUGARRIAK: UROLA ERDIA

Urola Erdia Gipuzkoa erdialdean kokatzen den eta 217,5 Km²-ko azalera totala duen eskualdea da, Gipuzkoa osoaren % 10,98a suposatzen duena eta Urola ibaiaren ibilbidean erdialdean kokatzen dena. Ezaugarri desberdinak dituzten 5 udalerri osatzen dute eskualdea: Azkoitia eta Azpeitia dira biztanle aldetik udalerri nagusiak eta eskualdeko erdi-gune ekonomikoak, bertan kokatzen direlarik eskualdeko enpresa garrantzitsuenak. Beizama, Errezil eta Zestoa, biztanle aldetik tamaina txikiko udalerriak dira (< 5.000 biz), Beizama eta Errezilek 1.000 biztanle baino gutxiago dituztelarik. Azken hauek landa izaera duten herriak dira.

DATU DEMOGRAFIKOAK

Datu demografikoei dagokionez, 30.485 pertsona bizi dira eskualdean, gizonezko eta emakumezkoen arteko proportzioa oso parekoa izanik eskualdean (%50,51 eta %49,49 hurrenez hurren) eta baita udalerri bakoitzean ere.


Azpeitia (14.579) eta Azkoitia (11.484) dira biztanle gehien biltzen dituzten udalerriak, eta Zestoa (3.659), Errezil (595) eta Beizama (168) dira biztanle aldetik eskualdeko udalerri txikienak.

	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Errezil	Zestoa	Eskualdea
Gizonezkoak (%)	50,10	50,16	61,90	51,60	52,50	50,51
Emakumezkoak (%)	49,90	49,84	38,10	48,40	47,50	49,49


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (2013/12/31)

Egitura demografikoari dagokionez, Urola Erdia eskualdeak Gipuzkoako oso antzeko biztanleriaren piramidea aurkezten du; populazioaren gehiengoa (%37,5) 15-44 urte bitartean kokatzen da eskualdean. Bestalde, zahartze indizea (> 65 urte) Gipuzkoakoa baino zertxobait baxuago da (%18,93 eta %20,63 besteak beste), Azpeitia delarik zahartze indize altuena duen udalerria (%19,16) eta Beizama baxuena (%16,67).

	0-14	15-44	45-54	55-64	>65
Gizonezkoak	8,72	19,52	7,74	6,00	8,53
Emakumezkoak	8,25	17,98	7,26	5,60	10,41
Guztira	16,97	37,5	15	11,60	18,93




	0-14	15-44	45-54	55-64	>65
Gizonezkoak	7,52	18,69	7,67	6,32	8,73
Emakumezkoak	7,15	17,81	7,65	6,56	11,90
Guztira	14,67	36,50	15,32	12,88	20,63



ARLO SOZIOPOLITIKOAK

Eskualdeko alderdi soziopolitikoei dagokienez, 2011ko udal hauteskundeetan 16.477 boto jaso ziren Urola Erdian, abstentzioa %28,90eko izan zelarik. Honela, gaur egun eskualdeak ondorengo mapa politikoa aurkeztzen du:



Iturria: Eusko Jaurlaritza (Udal hauteskundeak, 2011)

	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Errezil	Zestoa	Eskualdeko totala
EH Bildu	%43,20	%54,43		%60,14	%52,58	%49,82
PNV	%31,22	%27,88			%30,43	%28,46
Aralar		%4,08			%6,45	%2,74
PSOE	%7,46	%2,68			%2,05	%4,25
PP	%4,36	%2,32		%0,24	%0,66	%2,80
Hamika bat!		%6,07			%6,29	%3,68
Ind. Azkoitia 11	%11,48					%4,19
Ind 1 Beizama			%47,01			%0,38
Ind 2 Beizama			%47,01			%0,38
Ind 1 Errezil				%38,66		%0,98
Baliogabeak	%0,52	%38,67	%8,96	%10,98	%44,81	%40,65
Zuri	%1,76	%0,80	%3,73	%0,72	%0,92	%0,73
Abstentzioa	%30,89	%27,89	%8,22	%9,89	%30,94	%28,90

DATU GEOGRAFIKOAK

Hasieran aipatu den bezala, eskualdea oso izaera desberdina duten 5 udalerrik osatzen dute, biztanleriaren dentsitatea altueneko udalerriak 210,07 biztanle dituelarik Km2 eta baxuenekoak 10 biz/Km2 . Hau eskualdean dagoen dibertsitatearen adierazgarri zuzena da. Udalerri-udalerri:

Azkoitia (55,4 Km2) eskualdeko bigarren udalerriak populatuena eta dentsitate altuenetarikoa duena da (207,29 biz/Km2), udalerrian bertan oso izaera desberdinak dituzten auzoak daudelarik: herrigunea da gunerik populatuena eta bestalde, dentsitate baxuagoko beste zenbati auzo daude, Aizpurutxo, Altamira, Altzibar, Astarbe, Elosua, Floreaga, Izarraitz, Jausoro, Juin, Kukuerrri, los Martires eta Madariaga.

Azpeitia (69,4 Km2) da biztanle gehien dituen udalerria eta baita dentsitate altuenekoa ere, 210,07 biztanle bizi direlarik Km2. Hala ere, herritarren gehiengoa erdigunean bizi bada ere, landa izaera duten 10 auzok ere osatzen dute udalerria: Aratz Erreka (144 biz), Mantxinbenta, Nuarbe (37 biz), Oñatz (187 biz), Urrestilla (334 biz), Elosiaga, Lasao, Landeta, Loiola eta Eizagirre (132 biz).

Beizama da azalera (16,8 Km2), zein biztanle aldetik udalerriko herririk txikiena (10 biz/Km2), herrigunea eta beste lau auzok osatzen dutena (Illar-aldea, Agiñamendi, Urdanpileta-aldea eta Nuarbe). Beizama da Gipuzkoako bigarren herririk altuena.

Errezil eskuadeko bigarren udalerriak txikiena da (32,2 Km2) eta dentsitate baxuenetarikoa duena (18,48 biz/Km2), landa izaera sakoneko udalerria delarik. Eskualdeko gainontzeko udalerrien antzera.

Zestoa (43,7 Km²) 5 gune edo auzoek osatutako udalerria da: Erdigunea, Aizarna, Arroa, Iraeta Altzolaratz eta Lasao. Biztanleen dentsitatea eskualdeko batezbestekoa baino baxuagoa da (83,73 eta 140,16 biz/Km² besteak beste).

Ondareari dagokionez, Azpeitian kokatuta dagoen Loiolako Basilika da turismo aldetik erakargarritasun handiena duen ingurua. Honekin batera, Zestoako bainuetxeak ospe eta izen handia eman dio udalerriri baita ere. Bestalde, eskualdea osatzen duten udalerrri guztietan aurkitu daitezke ermita, basiliza, dorretxe eta eraikin eta baserri berezi ugari topatu daitezke baita arkeologia industrialeko ondarea ere (errotak, burdinolak, teiletxeak, karobiak, eta txondorrak).

Bestalde, eta nahiz eta Debako lurretan kokatu, Ekainberriko kobak Zestotik oso gertu kokatzen dira, non pintura ikusgarri eta garrantzitsuak dauden.

Ingurumen aldetik eskualdea interes natural handiko parajeen aurkitzen da eskualdea, Izarraitz mendi katearen magalean kokatua dagoelarik.

2. PROZESUAREN EZAUGARRIAK

2.1. HFI BURIAK

2014ko apiriletik azarora garatutako proiektuaren helburuak honakoak izan dira, kronologikoki azalduta:

- Partaidetzazko aurrekontuen filosofia, funtzionamendua eta emaitzen inguruan informazioa eman.
- 4 eskualdetan partaidetzazko aurrekontua garatzeko eredu metodologikoaren definitu.
- Eskualde bakoitzean proposamenen jasotze eta lehenestea egiteko partaidetzazko prozesua garatu.
- Proiektuan inplikaturako aholkularitza ezberdinek asistentzia teknikoa, koordinazioa, idazkaritza eta landa-lana egin.
- Prozesuan zehar, genero-ikuspuntua kontuan izan.
- Esperientzia probintzia guztira zabaltzeko, ikasitakoak eta ondorioak atera.

2.2. PROZESU METODOLOGIKOAREN DESKRIPZIOA

2.2.1 PROZESUAREN ATALAK

Jarraian, 2014ko apiriletik azarora garatutako partaidetzazko aurrekontuen prozesuaren eskema eta faseak aurkezten dira:

0. Prozesuaren planifikazio metodologikoa.
1. Informazio-saioak.
 - Gobernu-taldea
 - Aldundiko teknikariak
 - Batzar Nagusietako talde politikoak
 - Eskualde bakoitzeko udalak
2. Asistentzia teknikoa eta eskualde bakoitzean landa-lana egiteko ardura duten ekipoen arteko lehen koordinazio-bilera (guztira 5 izango dira).

3. Ekipo bakoitza eta eskualdeko bakoitzeko udalen arteko lehen koordinazio-bilera.
4. Komunikazio- eta zabalkunde- kanpaina.
5. Postontzi eta internet bidezko herritarren proposamen eta egitasmoen jasotzea.
6. Herritarren proposamen eta egitasmoak jasotzera zuzendutako udalerrrikako tailerrak eta berariazko kolektiboekin egindakoak.
7. Eskualde bakoitzean, Talde Sustatzaileen sorrera.
8. Herritarren proposamen eta egitasmoen erregistroa, antolamendua eta sistematizazioa.
9. Herritarren proposamen eta egitasmoen lehenestea egiteko irizpideen definizioa eta adostea Talde Sustatzaileekin.
10. Herritarren proposamen eta egitasmoen lehenestea egiteko eskualdeko batzarrak.
11. Lehenetsitako proposamenak Aldundian dagokion sailari bidaltzea.
12. Asistentzia teknikoaren bilera Aldundiko teknikariekin, herritarren proposamenen txosten informatiboa nola egin laguntzeko.
13. Batzar Nagusietako talde politikoekin informazio- eta deboluzio- saioa.
14. Aldundiko teknikariek herritarren proposamenak aztertu eta bideragarritasun-txostenak egitea.
15. Proposamenen ebaluazio teknikoaren berri emateko, Talde Sustatzaile eta Aldundiko teknikarien artean bilera.
16. 2015eko aurrekontuak txertatzeko herritarren proposamen eta egitasmoen azken hautaketarako lehen eskualdeko batzarra.
17. 2015eko aurrekontuak txertatzeko herritarren proposamen eta egitasmoen azken hautaketarako bigarren eskualdeko batzarra.
18. Eskualde bakoitzean hautatutako proposamen definitiboaren banaketa dagokion Aldundiko sailari.
19. Eskualde bakoitzean adostutako zerrenda definitiboaren berri emateko, Talde Sustatzaile eta Batzar Nagusietako talde politikoen arteko bilera.
20. Prozesuaren ebaluazioak:
 - Aholkularitza-ekipoak eta asistentzia teknikoaren arteko barne ebaluazioa
 - Aldundiko teknikariekin
 - Talde Sustatzaileak
 - Eskualdetako udalekin
 - “Herritarrekin” sarearekin

21. Azken txostena egituratu eta aurkeztea

Kronograma 2014

Ekintzak	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
0. Planifikazio metodologikoa									
1. Informazio-saioak									
2. Asistentzia tek – Ekipoak: 1.koord.-bilera									
3. Ekipoak - udalak: 1.koord.-bilera									
4. Komunikazio- eta zabalkunde- kanpaina									
5. Proposamenen jasotzea: postontzi eta interneta									
6. Udalerrietako tailerrak eta kolektiboekin									
7. Talde Sustatzaileen eraketa (TS)									
8. Proposamenen erregistroa, antolaketa eta sistematizazioa									
9. TSKin lehenesterako irizpideak adostu									
10. Lehenesterako eskualdeko batzarra									
11. Aldundiko sailei dagozkien proposamenak bidaltzea									
12. Asistentzia teknikoa-Aldundiko teknikariak:bilera									
13. Batzar Nagusiei deboluzioa									
14. Txosten teknikoak									
15. TS - Aldundiko teknikariak: bilera									
16. Azken hautaketara 1.eskualdeko batzarra									
17. Azken hautaketara 2.eskualdeko batzarra									
18.Aldundiko sail bakoitzari dagozkion azken proposamenen banaketa									
19. TS – Batzar Nagusiak: bilera									

20. Ebaluazioak									
21. Azken txostena									

2.2.2. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDU OROKORRA

2014an 4 eskualdetan garatutako partaidetzazko aurrekontuen esperientziak 9 hilabete iraun ditu, zeinetan herritarren proposamenak jasotzeko, aztertzeko eta lehenesteko metodologiak ezarri diren. Bi mailatan lan egin da: udal-mailan (udalerrri bakoitzean proposamenak jasotzeko bide ezberdinak irekiz: tailerrak, postontziak eta interneta) eta eskualde-mailan (partaidetzazko batzarren bidez, proposamenen lehenestea eta hautaketa egiteko ekintzak sustatuz).

Jarraian, proiektuaren egitura eta funtzionamendua azaltzen dira. Ekintza asko komunak izan dira; eredu tekniko eta metodologiko orokorra, eskualde bakoitzean egokitu beharreko gida gisa balio izan duena. Ekintza bakoitzean, eskualde bakoitzeko landa-lana eta dinamizazioa eraman duten bi eragile egon dira: 1) aholkularitza-ekipo bat (Bidasoaldean Elhuyar, Oarsoaldean Farapi, Tolosaldean Emun eta Urola Erdian Enea) eta CIMASen asistentzia teknikoa (laguntza teknikoa, aholkularitza eta planifikazioa eskainiz).

Planifikazio metodologikoa

Asistentzia teknikoak prozesu metodologikoa diseinatu du, ondoren, eta behar izan denean, aholkularitza-ekipo bakoitza bere eskualdean garatu eta egokitu izan duena. Hau guztia Foru Aldundiarekin koordinazioan egin da: herritarren proposamenen jasotzea (tailer, postontzi eta internet bidez), proposamenen lehenestea eta azken hautaketa, talde sustatzaileen funtzionamendua, txosten teknikoa eta prozesuaren ebaluazioak. Ekintza bakoitzaren diseinua etengabe eta iraunkorki landua izan da prozesu osoan zehar, ekintza bakoitza martxan jarri aurretik eta nahiko denborarekin, bakoitzaren edukiak eta funtzionamendua definituz Foru Aldundi eta aholkularitza-ekipoekin.

Partaidetzazko bilera bakoitzarentzako eta bakoitzaren helburuak kontuan izanda, talde –teknika eta –dinamika egokienak aukeratu dira, bakarkako hausnarketa eragin eta eskualdeko errealitatea elkarrekin irudikatzeko; baita proposamenen eraikuntza

kolektiboa eragiteko kontsensuak lortzeko ere, iritzi guztien bisibilizazioa eta balorazioa sustatuz.

Informazio-saioak

Proiektuaren hasieran, prozesuan inplikaturako eragile sozial ezberdinekin informazio-saioak egin dira, bai maila politiko zein teknikoan. Urola Erdian bilera hauek egin baziren ere, berriro egitea beharrezkoa ikusi da, prozesua egokitu egin baita eta 4 eskualdetara zabaltzeak ekarri duen dimentsio berria azaldu beharra baitzegoen. Era horretan, Aldundiko gobernu-taldearekin bilkura bat egin da, baita Aldundiko teknikariekin (edo zerbitziburuekin) ere, proiektuaren dimentsio berriak ezagutu eta Aldundiko sail bakoitzak bete dezakeen papera azaltzeko. Gainera, eskualde bakoitzeko udalen arduradunekin saio bat egitea ezinbestekotzat jo da (alkate, zinegotzi, teknikari...), zonalde bakoitzak bere berezitasunak baititu, eta bilera-gonbitea udal-korporazio osora zabaldua izan da, oposizio-taldeak barne, proiektuaren inguruko informazio izan dezaten. Azkenik, Batzar Nagusietako talde politikoekin saio bat egin da ere, Urola Erdiko esperientziaren jarraikortasunaren inguruan eta 4 eskualdetan martxan jarriko den proiektu berriaren berezitasunak azaltzeko.

Aldundia, asistentzia teknikoa eta eskualde bakoitzeko aholkularitza-ekipoen arteko koordinazioa

Aldundia, asistentzia teknikoa eta aholkularitzen arteko bilerak periodikoki egin dira. Bilera hauetan, a) egin beharrekoak prestatu eta adostu dira, aldezturik asistentzia teknikoarengatik diseinatu eta planifikaturakoak oinarritzat hartuz; eta b) egindakoak komunean jarri eta konpartitu dira.

5 bilera egin dira. Horietan azkena, prozesuaren ebaluazioa egitera zuzendu da. Aurreko lauak, ondorengo gaiak lantzeko izan dira (Gehigarrien atalean atxiki dira bileretako aktak):

- Lehenengo bilera (apirilak 4): informazio-saioen balorazioa, komunikazioa eta zabalkundea; prozesuaren ikuspegi globala; ondorengo ekintzen planifikazioa (eskualde bakoitzeko udalekin bilera, udalerrikako tailerrak eta kolektibo batzuekin tailerrak ospatzea, talde sustatzaileen eratzea); CIMAS eta eskualdeetako ekipoen arteko koordinazioa.

- Bigarren bileran (ekainak 4): komunikazioaren inguruko informazioa; eskualde bakoitzean, herritarren proposamenak jasotzeko fasearen informazio eta ebaluazioa; eskualde bakoitzeko talde sustatzailearen eraketaren inguruko informazioa eta ebaluazioa; eskualdeko leheneste-batzarren planifikazioa.
- Hirugarren bilera (irailak 9): komunikazioaren inguruko informazioa; talde sustatzaileek Aldundiko teknikariekin egin beharreko bilera; txosten teknikoek errebisioa; eskualdetako aholkularitza-ekipoek udalekin egin beharreko koordinazio-bilera; eskualdeko lehenesterako bi batzarren antolamendua eta garapena; urritik aurrera egin beharreko ekintzak.
- Laugarren bilera (urriak 14): proposamenen leheneste eta hautaketaren informazioa eta azterketa; garatu beharreko ondorengo ekintzak (dagokion Aldundiko sailari azken proposamenak bideratu, talde sustatzaileek Batzar Nagusietako talde politikoei egindako deboluzioa, aholkularitza-ekipoek eta udalek egindako koordinazio-bilera, dagokion administrazioari 2015erako aurrekontuan sartu ez diren proposamenak bideratzea, prozesuaren ebaluazioa, azken txostena egin eta aurkeztea).
- Bosgarren bilera (abenduak 1): prozesuaren barne balorazioa.

Bilera bakoitzaren aurretik, asistentzia teknikoak bilerarako dokumentazioa eta beharreko materiala bidali du, bai eskualdetako aholkularitza-ekipoei, baita Foru Aldundiari ere. Erabilera publikoko nahiz herritarrekin landu beharreko dokumentazio zein materialak euskaraz ere aurkeztu dira.

Eskualde bakoitzeko aholkularitza-ekipo eta udalen arteko koordinazio-bilerak

Eskualde bakoitzeko udalekin koordinazio eta komunikazio egokia izatea ezinbestekoa izan da, helburu bikoitzarekin (proiektuaren diseinuan jasotzen zen bezala):

1. Alde batetik, prozesua aberastuko duten aurreikusitako proiektu, plan, egitasmo zein ekintzen beharrezko informazioa txertatzea. Baita udalerri-mailako eta mekanismo ezberdinetan jaso ahal diren bizilagunen proposamenen inguruko informazioa ere (udalerrietako partaidetzazko aurrekontuak, partaidetzazko planak, kontsulta publikoak...). Bestalde, proposamenak jasotzeko egin asmo diren berariazko tailerrak antolatzeke kolektiboen inguruko informazioa. Eta azkenik, Aldundiko partaidetzazko aurrekontuen proiekturako aprobetxatu eta udalerrietan funtzionatzen duten herritarren partaidetzarako medio, kanal eta gailuen inguruko informazioa (kontseiluak, foroak, partaidetzazko organoak...).

2. Udalekin zuzeneko komunikazioa mantentzeko beharra, proiektuaren martxaz informatzeko, ekintza ezberdinetan inplikatzeko eta feedbacka bermatzeko.

Bi helburu horiek lortzeko, prozesu osoan zehar, hainbat bilera ospatu dira.

Herritarren proposamenen jasotzea

Eskualde bakoitzean proposamenak jasotzeko, mekanismo desberdinak ireki dira, bai bertaratu beharrekoak (tailer nahiz bileren bidez), baita postontzi zein online bidezkoak ere. Tailerrei dagokienez, postontzi eta internet bidezko kanalak irekita zeudela egin dira paraleloki, eta udalerri-mailan egin dira (nahiz eta Tolosaldean udalerriz gaindiko tailer batzuk ospatu, eskualdeak 28 udalerri baititu), eta kasu batzuetan, udalerri batean hainbat tailer egin dira bere zabalera handiagatik nahiz auzoen sakabanaketarengatik. Batzuetan ere, berariazko tailerrak egin dira kolektibo espezifiko batzuekin.

Proposamenak jasotzeko herritarrekin egindako tailerretan, honako matrizearekin egin da lan:

Proposamenaren idazketa	
Proposamenaren helburuak	
Non jarriko da martxan? Esparru geografikoa, kokapena	
Nola jar daiteke martxan? Beharrezko urratsak, ekintzak	
<i>Nor dago inplikatuta?</i> Martxan jartzearen arduradunak	
Nori zuzenduta dago? Hartzaileak, onuradunak	

Bestalde, tailer, postontzi nahiz tailer bidez jasotako herritarren proposamenen erregistro eta sistematizaziorako, datuen iraulketarako fitxa erabili da.

Talde sustatzaileak

Eskualde bakoitzean, zonaldeko udalerri ezberdinetako herritar ordezkariekin Talde Sustatzailea sortu da. Partaidetzazko organo hau, proiektuan, elkarlana handiagoa izateko sortu da, eskualde nahiz herrietako errealitatearen ezagutza handiagoa eman, eta herritar guztiekin ireki ezin diren partaidetzazko aurrekontuen inguruko eztabaida- eta hausnarketa- gune gisa bilakatuz. Prozesuaren hastapenetik, osaera irekia izatea eta nahi zuen orok parte hartzea proposatu da, eta partaidetzazko aurrekontuen prozesuan aktiboago parte hartu nahi izan duen boluntarioez osatuak egon dira. Osaera egokiena 10 eta 20 (malgutasunarekin) pertsona artekoa izatea proposatu da, beti ere, genero-ikuspegia kontuan izanda. Baina partaidetza boluntarioa izateak, talde sustatzaileraren bat besteak baino desorekatuagoa egotea eragin du. Talde sustatzailean parte hartzeko gonbitea, udalerrietako tailerretan egin zen, baita ireki ziren proposamenak jasotzeko kanaletan informatu ere: postontzietan eta interneten.

Talde sustatzaileen funtzionamendua ondorengo gaiak lantzera bideratu da: lehenesterako irizpideak adostea, Aldundiko teknikariek egindako balorazio-txostenen gainbegiraketa, Batzar Nagusiei azkenik hautatutako proposamenen berri eman, eta prozesu osoaren ebaluazioa egin. Momentu oro, ekipo tekniko eta Aldundiaren laguntza izan dute.

Lehenesterako irizpideak adostea

Talde Sustatzaileko kideak izan dira proposamenak lehenetsita izateko bete behar dituzten irizpideak definitzeko arduradunak. Talde sustatzaileetan asistentzia teknikoak proposatutako irizpide-zerrenda aurkeztu dira, eta eztabaida eragin da irizpide berriak txertatu nahiz bateon bat kentzeko. Asistentzi teknikoak hasieran aurkeztutako irizpideak honakoak izan ziren:

ZEIN KOLEKTIBORI ERAGITEN DIOTENAREN ARABERA	
1	Genero-berdintasuna sustatzen duten proposamenak
2	Jendarte-bazterketaren arriskuan dauden kolektiboentzako onuragarriak diren proposamenak (langabetuak, migratzaileak, gutxiengo etniak, adineko pertsonak...)
3	Behar bereziak dituzten pertsonentzako onuragarriak diren proposamenak

PROPOSAMENEN EDUKIAREN ARABERA	
4	Eskualde osoarentzako onuragarriak diren proposamenak. Eskualde osoan eragina izango dutenak. Elkarrekin zerbait sortzeko balio izango dutenak.
5	Udalerri guztientzako onuragarriak izango diren proposamenak. Udalerri guztien arteko oreka eta banaketa bermatuko dutenak. Udalerrietan dauden beharrak kontuan izaten dituztenak, bereziki, herri txikienak.
6	Udalerri bat baino gehiagorentzako onuragarriak diren proposamenak.
7	Inklusioa, aniztasuna, tolerantzia, kulturartekotasuna... baloreak sustatzen dituzten proposamenak.
8	Herritartasun autonomo, parte hartzaile eta konprometituaren eraikuntza sustatuko duten proposamenak, eta/edo herritarren artean sinergiak sortzen lagunduko dutenak. Auzolana, batzarra eta herri-ondarea bultzatuko dutenak.
9	Ingurumena, garapen sostengarria, iraunkortasuna eta subiranotasuna sustatuko duten proposamenak.
INBERTSIOAREN ZEIN MANTENUAREN IZAERAREN ARABERA	
10	Lurralde-oreka baten markoan, azpiegitura eta ekipamenduen inguruko asetu gabeko lehentasunezko beharrei erantzuten dieten proposamenak. Udalerrietako oinarritzko beharrei erantzuna ematen dietenak.
11	Egoera txarra, arriskugarritasuna edo irisgarritasuna (orokorrean zein kolektibo espezifikoentzako)... Arazo ezberdinak konpontzen laguntzen duten proposamenak.
12	Denboran zehar iraunkorrak izan daitezela. Tamaina txikiko ekintza lehenesten dituztenak, azpiegitura handien aurrean. Etorkizunera begira, baliabide endogenoak aprobetxamendua sustatzeko balio izango dutenak.
EMAITZEK IZANGO DUTEN IKUSPENAREN ARABERA	
13	Epe motzean, herritarrek prozesuaren proposamen eta ondorioak hautematea. Ukigarriak eta ikusgaiak diren kontuak izatea.

Proposamenen antolamendua eta sistematizazioa

Behin bide ezberdinetatik herritarren proposamenak jasota, antolatu eta sistematizatu egin behar izan dira, sailka, konpetentziaren arabera, akzio-esparruaren arabera, nahiz udalerrika taldekatuz. Gainera, proposamen bakoitzak betetzen zituen talde sustatzailek proposatutako irizpide-kopurua markatu dira.

Proposamenen lehenestea

Eskualdetan jaso diren proposamen-kantitatea handia izan dela eta, beharrezkoa izan da lehenesterako prozedura bat ezartzea. Horrela bada, eskualde bakoitzean, talde sustatzaileek definitutako irizpideen arabera 20 proposamen lehenetsiko direla adostu da. Lehenestea egiteko, zonalde bakoitzean, eskualdeko batzar bat egin da (ekainaren 10ean), eta ponderazio-sistema baten bidez, garrantzitsuenak aukeratu dira, aurrerago egingo den proposamenen azken hautaketarako bidean lehen filtroa ezarriz.

Proposamenen ebaluazio teknikoa

Lehenetsitako proposamenen zerrenda Aldundiko sail bakoitzari dagozkion proposamenak bidali zaizkie, proposamen bakoitzaren bideragarritasun-txostena eta estimazio ekonomikoa egiteko. Herritarren proposamenak teknikoki, konpetentzien arabera eta ekonomikoki aztertu dituzte. Eta lan hori errazteko, asistentzia teknikoak ondoren aurkezten den lan-fitxa sortu du, eta gainera, zalantzak argitzeko bilera bat ere egin da teknikariek.

Proposamenaren idazketa		
Atxikita dokumentazioa dauka:	BAI	EZ
Proposamena egiten duen pertsonaren kontakturako datuak (ez bete)		
Izena :	Tfnoa:	e-maila:

ESKUMENEN ARABERAKO BIDERAGARRITASUN-TXOSTENA(alderdi juridiko edo legala, etab)		
Kontuan izatekoak:		
Atxikita dokumentazioa dauka (baiezko kasuan, gehitu):	BAI	EZ
Herritarren proposamena bideragarria da eskumen foralen arabera:	BAI	EZ

BIDERAGARRITASUN TEKNIKOAREN TXOSTENA (Alderdi tekniko, juridiko edo legalak, etab)		
Kontuan izatekoak:		
Atxikita dokumentazioa dauka (baiezko kasuan, gehitu):	BAI	EZ
Herritarren proposamena teknikoki bideragarria da:	BAI	EZ

BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN TXOSTENA: gutxi gorabeherako koste nahiz aurrekontu estimatua (finantza- eta ekonomia-alderdia, etab.)		
OHARRA: bete bakarrik proposamena eskumen foralekoa edo subentzionagarria eta teknikoki bideragarria bada.		
Kontuan izateko kostuen xehetasuna:		
Atxikita dokumentazioa dauka (baiezko kasuan, gehitu):	BAI	EZ
PROPOSAMENAREN GUTXI GORABEHERAKO KOSTU ESTIMATUA	€	

Proposamenen azken hautaketa

Behin lehenetsitako proposamenen txosten teknikoak egindakoan, 2015eko Aldundiaren aurrekontuan sartu beharreko proposamenen azken hautaketa egiteko momentua iritsi da. Horrela bada, eskualde bakoitzeko herritarrek egokienak diren eta 500.000€tan sartzen diren proposamenak hautatu behar izan dituzte kontsentsu bidez, txosten teknikoek bideragarritasunaren inguruan esandakoa kontuan izanik eta proposamen bakoitzaren aurreikusitako aurrekontua aintzat hartuz. Eta horretarako, bi eskualdeko batzar egin diren zonalde bakoitzean, hausnarketan sakontzeko aukera emanek eta erabakiak urgentziaz hartzea ekidinez.

Lehenengo batzarrean (irailaren 23an ospatutakoa), lehenetsitako proposamenen hierarkizazioa egin da, eztabaida baten ondorioz, lehenengo rankinga definituz. Era horretan, lehenetsitako proposamenen zerrenda ordenatua lortu da, garrantziaren

arabera sailkatutakoa, eta ondoan bakoitzaren aurreikusitako aurrekontua agertuko duena. Honela bada, 500.000€tan zeintzuk sar daitezkeen ikusi ahal izan da.

Bigarren batzarrean (irailaren 30ean ospatutakoa), 2015eko Aldundiaren aurrekontuan txertatu beharreko herritarren proposamen zein egitasmoen inguruko azken erabakia hartu da. Horretarako, aurreko batzarrean definitutako ordena gogora ekarri, baina aukera ezberdinak planteatu ahal izan dira 500.000€ horiek kudeatzeko.

2.2.3. ESKUALDE BAKOITZEKO FUNTZIONAMENDUA

BIDASOALDEA

BIDASOALDEKO UDALEKIKO HARREMANA ETA KOORDINAZIOA

Udalekin komunikazioa Bidasoaldeko Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuko zailtasun handienetakoa izan da, eta neurri handi batean, prozesua bera behar bezala garatzeko oztopo handia izan da.

Prozesua aurkeztu eta honen berri emateko, bilera baterako gonbidapena egin zitzaion Irun eta Hondarribiko Udalei apirilaren 3rako, Irungo Gordailua eraikinean. Bertara udal bakoitzeko zinegotzi bana bertaratu ziren, baina gobernu taldeetako kiderik ez. Horren ostean, gobernu taldeekin harremana bideratu zen bilerara bertaratu ez zirenez, udal bakoitzarekin bilera bana lotu zen. Hondarribiko Udaleko Lupe Olaskoaga zinegotziarekin bilera apirilaren 15erako hitzartu zen, eta Irungo Udalarekin hainbat ahalegin egin ostean, ez zen bilerarik jartzea lortu maiatzaren 6ra arte. Horrek, halabeharrez, prozesu guztia atzeratzea ekarri zuen, eta gainerako eskualdeetarako ezarritako egutegia betetzeko ezintasuna eragin zuen.

Hondarribiko Udalak berehala erantzun zion bilerak egiteko leku-eskaerei zein buzoiak jartzeko eremuei. Honakoak izan ziren:

- **Bilerak** (herrikoa zein eskualdekoa): Zuloaga etxean
- **Buzoiak:**
 - Amuteko auzo elkarte
 - Mendeluko auzo elkarte
 - Osasun zentroa
 - Udal kiroldegia

- Arraun elkarteak
- Udaletxea

Horietan guztietan jarri ziren buzoiak, Amuteko auzo elkartean izan ezik. Elkarte hori, normalean, itxita dago, eta bazkideek baino ez dute sartzerik. Buzoia bertan jartzeko zailtasunak egon ziren, eta beraz, azkenean, beste bost tokietan jarri ziren buzoiak Hondarribian.

Irungo Udalak auzoetan egindako bileretarako lokal eskari gehienak ukatu zizkigun, eta prozesua erdiguneko bi aretotan egiteko aukera besterik ez zuen eskaini. Horrek erabat zaildu zuen prozesuaren antolaketa, herritarrentzat hain eskuragarri ez zeuden lekuak hartu behar izan baitziren. Honakoa izan zen erabilitako lekuak:

- **Bilerak:**

- Larrendi, Olaberria, Lapize, Belaskoenea: Gordailua (Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikina)
- Landetxa: Elatzeta ikastetxe publikoa (Auzo elkartearen bidez erabili ahal izan genuen).
- Behobia-Artia: Toki Alai institutua (Eusko Jaurlaritzaren menpekoa. Auzotarrentzat urrun suertatu zen).
- Dunboa, Santiago, Beraun, Alde Zaharra, erdialdea: Ospitale Zaharra (Irungo Udalak utzitako egoitza)
- Anaka, Urdanibia, San Migel, Pinar, Antzaran: Mondragon Unibertsitatea (ordainpekoa).
- Eskualdekoak eta Talde Sustatzailekoak: Amaia Kultur Zentroa (Irungo Udala)

- **Buzoiak eta kartelak:** Udal instalazioetan jartzeko debekuaren aurrean, Irungo 15 auzo elkartetan jarri genituen kartelak eta buzoiak. Elkarte hauetako gehienak itxita daude, eta bazkideak baino ezin dira sartu, edo kasuren batean, astean ordubete inguruko ordutegia dute herritarrentzat. Jasotako proposamen kopurua oso eskasa izatea eragin zuen.

Prozesuan zehar komunikazioak e-mailez izan dira, bi udalekin elkartzeko ezintasunaren aurrean. Balorazioa egiteko bilera Hondarribiko Udaleko zinegotzi batekin egin da, eta Irungo Udalarekin urtarilerara atzeratu behar izan da bilera hori. Urtarrilean egingo da, aurrera begirako lankidetzak ere finkatzeko asmoarekin.

Aurrera begira, ezinbestekoa da udalekin harremana beste modu batera lotzea, hitzarmen edo konpromiso-gutunen baten bidez, antolaketa lanak ez ezik, ondoren ere herritarrek onartutako proiektuen gauzatzeari begira.

BIDASOALDEKO KOMUNIKAZIOA ETA ZABALKUNDEA

Arestian aipatu bezala, arazo handiak izan ditugu komunikazio lanak txukun egin ahal izateko. Tokiko komunikabideen indarra ez da oso handia, eta Ser Irrati-kateko eta Diario Vascoko edizio lokala dira oihartzun eta zabalkunde handiena duten hedabideak, nabarmen. Ser Irrati katean publizitate (eta publierreportaje) tartear txertatu dira, eta hori nabaritu da prozesuan (partaideetako batzuek informazio hori besterik ez dutela jaso aipatu izan dute). Diario Vascon, berriz, prozesu honen inguruan Irungo Udalak egindako balorazio, adierazpen, ohar eta prentsaurrekoek oihartzuna izan dute, eta horrek gure mezua sartzen ahalbidetu digu, nahiz eztabaidaren erdian aritu behar izan dugun. Nolanahi ere, batez ere, Irunen egin duten batzarrek izan dute oihartzuna, eta modu askoz apalagoan Hondarribikoek.

Kartelak jartzeko mugek (auzo elkarteen barruan, eta Hondarribiko 5 lekutan baino ez ditugu jarri ahal izan), prozesua herritarren gehiengoek ez ikustea ekarri du. Aldundiak ahalegin handia egin zuen etxe guztietan prozesuaren berri ematen zuen esku-orria buzoiratzeko, baina emaitza ez da oso positiboa izan, batetik, epekin oso estu ibili ginelako (Hondarribiko zenbait etxetan, esaterako, bilera pasa eta gero iritsi zen komunikazioa), eta batez ere, hiriaren dimentsioengatik, izaera urbanoagatik, eta kolektibitate handiko etxeak izategatik (askotan publizitatea jaso nahi ez dutela espresuki adieraziz), asko izan dira etxean esku-orria jaso ez zutela esan diguten herritarrak (datu estatistikorik izan gabe, esan dezakegu gehiago izan direla parte hartu duten herritarren artean etxean esku-orria jaso ez dutenak jaso dutenak baino).

Webgunea ez da ezaguna, eta oso ekarpen gutxi jaso dira internet bidez. Ez da komunikaziorako kanal moduan erabiltzen, ez proposamenak egiteko, ez prozesuaren berri izateko (deialdiak, aktak, proposamenak ezagutu...). Egoera hori iraultzeko estrategia berezitu bat beharrezkoa da, eta bilatzaileetan ere, posizionamendu egokiago bat bilatu behar da.

Prozesua ikusarazteari begira, bestelako formatu batzuetan pentsatu beharko litzateke, hala nola, kalean eta eraikin publikoetan panel handiagoak jarritz, banderolak edota autobus markesinetako eta pantailetakoa publizitateen gisakoak, herritarrek prozesuaren berri zuzena izan dezaten. Sare sozialetan ere oso presentzia eskasa

izan du prozesuak, eta hor ahalegin askoz handiagoa egin beharko litzateke, benetako apustu bat, etengabeko komunikazio kanal bat bihur dadin, eta orain heltzen ez garen publiko batengana iristeko.

Partaideekin harremana, nagusiki, posta elektronikoz eduki da. Oro har, komunikaziorako bide oso egokia den arren (azkarra, arina, eroso eta merkea), ezin dugu ahaztu hainbat muga ere badituela, bereziki adineko jendearengan (asko izan dira 65 urtetik gorako pertsonak bileretara etorri direnak, baina posta elektronikoko helbiderik ez zutenez, informazioa jaso ezinik geratu direnak, eta ondorioz, prozesuari segimendurik egin ez diotenak). Bestalde, herritarrek e-mailak gaizki idazteak, edo letra ez ulergarriarekin egiteak hainbat datu oker jasotzea dakar, eta horiekin ere harremana moztu egiten da. Nabarmena izan da prozesu honetan egoera hori, behar bada, adineko jende askok parte hartu duelako. Asko izan dira, halaber, Aldundiko mailina jaso ez dutela adierazi izan diguten herritarrak. Hori guztia, berez ere zaila izan den komunikazio-kontestu batean aintzat hartu beharrekoa da. Partaideen pertzepzio orokorra da prozesua ez dela aski ezagutzera eman, eta jende gehienarentzat ezezaguna izan dela. Talde Sustatzailearekin zein udal ordezkariekin egindako balorazioetan ere, oso agerian geratu da hori, eta hobetu beharreko alderdi nagusia dela azpimarratu dute.

PARTE-HARTZAILEAK


Prozesuaren lehen fasean herrikako lanketa egin zen. Irunen 5 auzotan egin ziren lehen fase horretako bilerak: Anakan, Behobian, Belaskoenean, Erdialdean eta Landetxan. Hondarribian, berriz, bilera bakarra egin zen. Herrikako bilerez gain, sektorekako saioak zeuden aurreikusita, baina, Berdintasunaren esparruko eragileena bakarrik egin zen.

Ondoren, eskualde-mailako hiru saio egin ziren; lehena Irunen, bigarrena Hondarribian eta azkena, berriz, Irunen.


Guztira 137 lagunek parte hartu dute. Saio bakoitzeko parte-hartzaileak eta haien inguruko datuak ondorengo taulan jaso ditugu, baita internet eta buzoi bidez jasotakoen datuak ere.

	Kopurua	Emak	Gizon.	Euskal.	Gaztela.	25-50	50-65	≥ 65	ed
Anaka	5	3	2	3	2	2	3	-	-
Behobia	5		5	3	2	3	2	-	-
Belaskoenea	16	3	13	3	13	2	7	4	3
Erdialdea	12	2	10	6	6	6	5	1	-
Landetxa	23	15	8	14	9	7	9	7	-
Guztira Irunen	61	23	38	29	32	20	26	12	3
Hondarribian	10	4	6	10	-	2	4	4	-
	-								
Berdintasuna	2	2	-	2	-	-	1	1	-
	-					16-30	31-45	46-65	ed
Internet bidez	20	7	13	11	9	3	10	7	
Buzoi bidez	17	8	9	6	11	1	9	7	
Eskualdeko 1. saioa	38	14	24	19	19	16	16	4	1
berriak	14	4	10	7	4	7	4	3	-
Eskualdeko 2. saioa	8	3	5	7	1	4	4	-	-
berriak	2	1	1	1	1		2		
Eskualdeko 3. saioa	30	15	15	16	14	15	6	9	-
berriak	11	9	2	6	5	6	14		
GUZTIRA	137	57	80	73	64	39	57	38	3


Parte-hartzaileak sexuaren arabera



Parte-hartzaileak adinaren arabera



Parte-hartzaileak hizkuntzaren arabera



Partaideak parte-hartzeko moduaren arabera



Oharra: Partaide berak modu batean baino gehiagotan parte hartu ahal izan du, horregatik guztien batura partaide kopurua baino handiagoa da.

OARSOALDEA

OARSOALDEKO UDALEKIKO HARREMANA ETA KOORDINAZIOA

Oarsoaldean, 5 bilera egin dira eskualdeko udalekin: 4 planifikazio eta koordinaziorako, eta beste bat udalerrri bakoitzean komunikazio- eta difusio- bideak definitzeko.

Hasiera batean, Aldundiko egitasmoa azaltzeko bilera orokor bat egin zen: ekimena, prozesuaren faseak, aurreikusitako kronograma... Ondoren, udal bakoitzarekin bildu zen Farapi Aholkularitza, prozesuaren nondik norakoak zehatzago azaldu eta udalerriko beste ekimen batzuekin ez gainezartzeko, baita prozesuko zabalkundea egiteko udalerrri bakoitzean erabiliko ziren bide nahiz euskarriak adosteko.

Gainontzeko bilerei dagokienez, a) prozesuaren faseen eta horietako bakoitzaren emaitzen segimendua egitera, b) ondorengo faseetarako betebeharren koordinazioa egitera eta c) prozesuaren etengabeko ebaluazioa egitera zuzendutako bilerak izan dira.

Bilera guztietan, administrazio guztietako errepresentazio politikoa bermatzen saiatu gara, alkateen bidez nahiz herritarren partaidetzako arduradun politikoen bidez. Hori dela eta, nagusiki, honakoek hartu dute parte:

- Lezoko Alkatea edo Kulturako zinegotzia
- Oiartzungo Alkatea edo Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia
- Errenteriako Alkatetzaren Kabineteko arduraduna
- Pasaiaiko Partaidetzarako zinegotzia

Deitutako pertsona guztien parte-hartzea errazteko, eta proiektuaren eskualdeko izaera indartzeko, bilerak lekuz txandakatzen joan gara, udalerriz udalerrri.

LEKUA	DATA
Garapen Agentziaren egoitza	Apirilak 3, 9:30
Pasaia Donibane	Ekainak 5, 12:00
Lezo	Irailak 10, 11:00
Oiartzun	Azaroak 20, 10:00

Horietaz gain, hasieratik, Oarsoaldeko Garapen Agentziaren lankidetza izan dugu; 1993.urtetik eskualdeko garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko, 4 udaletxeen lidergopearan lan egiten duen agentea. Agentziak enplegua, enpresen promozioa, euskararen sustapena, lankidetza... gaiak lantzen ditu, eta garapen ekonomiko eta sozialarekin zerikusia duten instituzio eta entitate anitzekin egiten du lan programa ezberdinen garapenean: Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, SPRI

eta SPRILURrekin, INEMarekin, Estatu-mailako ministerio ezberdinekin eta Europako Fondo Sozialarekin. Era honetan, Garapen Agentziaren partaidetza ezinbesteko laguntza izan da prozesuaren garapenean; prozesuak eragindako proposamenen exekuzioan izango den bezala.

Kasu horretan, 2 bilera formal egin dira Agentziaren egoitzan: bata, prozesuaren hasieran, eta bestea, bukaeran. Baina etengabeko kontaktu zuzena mantendu da momentu oro, Agentziak prozesurako izendatutako arduradunarekin: Enplegu Zuzendaria.

Prozesuaren garapen, koordinazio eta segimendurako, herritarren ordezkaritza ere izan dugu: Talde Sustatzailea. Gune hori irizpide basiko eta integral batzuk kontuan izanda eraiki da: sexua, adina eta udalerria. Era horretan, Oarsoaldeko Talde Sustatzailea eratu duten pertsonen perfila oso anitza izan da eta gazte, migratzaile, sektore ezberdinetako, jubilatatu, langile, zaintzaile... pertsona ezberdinen ekarpenak jaso ahal izan ditugu.

UDALERRIA	SEXUA
Erreneria	Emakume
Erreneria	Gizon
Oiartzun	Gizon
Lezo	Gizon
Pasaia San Pedro	Gizon
Pasaia Trintxerpe	Emakume
Pasaia Antxo	Gizon
Pasaia Donibane	Emakume

Talde Sustatzailearen bileretarako, udal bakoitzak udal-azpiegiturak erraztu dituzte eta bilerak eskualdean hoberen komunikatuta dauden udalerri ezberdinetan egin dira:

LEKUA	DATA
Pasaia - Antxo	Ekainak 5, 18:00
Lezo	Irailak 16, 18:00
Erreneria	Urriak 22, 18:00

Finean, prozesuan zehar ospatu diren bilera guztiak udal-azpiegituratan egin dira, 4 udalerrietako korporazien kudeaketa eta prestutasunaren bidez.

Esaterako, prozesuaren lehen fasean, udalerri guztietan egin ziren bilerak proposamenak jasotzeko.

LEKUA	DATA
Pasaia:	
Antxo	Maiatzak 5, 19:00
Pasaia Donibane	Maiatzak 12, 19:00
Trintxerpe (San Pedro)	Maiatzak 19, 19:00
Lezo	Maiatzak 10, 11:00
Oiartzun	Maiatzak 16, 19:00
	Maiatzak 17, 10:30
Errenteria	Maiatzak 17, 11:00
	Maiatzak 21, 18:00

Ondorengo faseetan aldiz, eskualdeko tailerrak egiteko, herritarren irisgarritasuna eta gertutasuna irizpideak lehenetsi dira eta eskualdean hoberen komunikatuta dauden udalerrietan egin dira bilerak.

LEKUA	DATA
Errenteria	Ekainak 10, 18:30
Pasaia - Antxo	Irailak 23, 18:30
Lezo	Irailak 30, 18:30

ESKUALDEKO KOMUNIKAZIOA ETA ZABALKUNDEA

Eskualde guztietako komunikazio-kanpainak masiboki zabaltzen diren medioen bidez egin dira, batez ere, idatzizko prentsan eta irratan. Horretarako, Aldundiak euskarri anitz jarri ditu prozesuaren fase bakoitzerako.

- Web-orria: <http://www.aurrekontuahobetzen.net>
- Kartelak A2 tamainan

- Komunikabideetarako euskarriak: moduluak, bannerrak, kuñak...
- Aldundiaren izenean egindako mailing-ak
- Proposamenak jasotzeko esku-orriak elebitan
- Lehenetsitako 20 proposamenen diptikoak etxez etxe banatzea



Baina eskualde bakoitzean, eta bereziki udalerri bakoitzean, errealitate lokal bakoitzari egokitutako komunikazio-plana definitu da. Eta udalen laguntzaz, beraien komunikazio-arduradunen bitartez, herritarrei zuzendutako gertuko komunikazio-kanpaina egin ahal izan da.

Azpimarratu beharra dago, komunikazio- eta zabalkunde- lanetan, arreta berezi bat jarri dela administrazioetatik urrunen dauden kolektiboetaraino iristeko, baita prozesu publikoetan parte hartzen ez duten kolektiboenganaino gerturatzeko ere.

Ondoren, udalerri bakoitzean landutakoaren laburpen bat azaltzen da:

	LEZO	PASAIA	OIARTZUN	ERRETERIA
KARTELAK eta ESKUORRIAK	Kartelak eta esku-orriak udalerriko leku ezberdinetan jarri			
POSTONTZIAK	Kokalekuak: - Udaletxea - Anbulatorioa - Liburutegia - Ikastola - Kiroldegia - Eskola - Altamira auzo elkarte	Kokalekuak: - Antxo: Azoka - Donibane: Arizabalo - Udaletxea eta Herri Eskola - Trintxerpe: Alkateordetza eta Musika Eskola - San Pedro: Liburutegia	Kokalekuak: - Udaletxea - Kiroldegia - Anbulatorioa - Iturriotzeko Dorretxea - Altzibarko udal espazioa - Xorrolako autobusa - HELTA elkarte egoitza	Kokalekuak: - Udaletxea - Kiroldegia (2) - Liburutegia - Anbulatorioa - Gizarte Zerbitzuaren egoitza
ERABILITAKO EUSKARRIAK	Udaleko web orria Sare sozialak Elkarteei e-mailing-a Bandoa	E-mailing-a	Aldizkari digitala, hilabeteko agenda Autobuseko pantaila Irratian kufiak eta elkarriketa Elkarteei e-mailing-a	Udaleko web orria Sare sozialak Elkarteei e-mailing-a
BESTEAK	- Jai Batzordeko bileran azaldu - Eskola amaitutakoan, parkera gerturatu eta zaintzaileei azaldu - Jubilatuen elkarteaz azaldu	- San Pedron martxan egon zen prozesu batean azaldu - Migrazio-teknikarekin hitz egin - Berdintasun-teknikarekin hitz egin - Jai Batzordeei azaldu	- Jai Batzordean azaldu - Gizarte Hezkuntza Kontseiluan azaldu - Kirol Kontseiluan azaldu	- Aholku-kontseiluetan azaldu - SOS Arrazakeria-koekin bildu - Lokutorioetatik pasa - Gazte Mugimendukoekin bildu - Talde feministekin bildu

Adibide batzuk:

- Hitzako artikulu bat;
<https://www.dropbox.com/s/dnm1tm5nc296t6c/Captura%20de%20pantalla%202014-12-03%2017.01.42.png?dl=0>
- “Hirian” artikulu bat:
<http://www.hirian.com/2014/10/03/un-total-de-once-proyectos-recibirán-los-500-000-euros-de-los-presupuestos-participativos-en-oarsoaldea/>
- Oiartzun Irratian elkarriketa bat:
<http://www.oiartzunirratia.org/attachments/article/369/udalaren%20tarte%20Jo ne%20Karrera%202014-09-24.mp3>



PARTE HARTZAILEAK

Herritarren partaidetza aldakorra izan da prozesuan zehar.

Proposamenak jasotzera zuzendutako lehenengo fasean, gertutasunean oinarritutako komunikazio-kanpainaren ondoren, eta batez ere prozesu publikoetara gerturatzen ez diren kolektiboetara gerturatzeko saiakeraren ondoren, partaidetza ugaria izan zen, zabaldutako kanal ezberdinen bidez: web-orria, esku-orriak eta postontziak, eta tailerrak.

Kanala	Partaide zkia.
Web-orria	27
Postontzietan esku-orriak	65
Udalerrietako tailerrak	86
Berariazko tailerra	10
GUZTIRA	233

Lehenengo fase honetan parte hartu duten pertsona guztien artean, eta 24 pertsonak sexua markatu ez dutela kontuan izanda (bereziki, postontzien bidez parte hartu duten pertsonak izan dira guztiak), sexuaren arabera lehenengo partaidetza-ratioa atera dezakegu:

Emakumeak	Gizonak
68	100

Ondorengo faseetan aldiz, eskualdeko tailerretan, partaidetza baxuagoa izan da, bereziki emakumeen partaidetza jaitsiz.

	Partaide zkia.	Emakume	Gizon
Eskualdeko 1.tailerra	27	8	19
Eskualdeko 2.tailerra	11	3	8
Eskualdeko 3.tailerra	25	8	17
GUZTIRA	63	19	44

Parte hartu duten pertsonen artean, perfil ezberdineko jendea topatu dugu: jubilatua, gaztea, migratzailea, sektore ezberdinetakoa, elkarte bateko kidea, bere izenean etorri dena... Horrek prozesua aberastu du eta horren seinale da Oarsoaldean lehenetsitako zerrendan ageri diren proposamen ugariak/anitzak.

TOLOSALDEA

TOLOSALDEKO UDALEKIKO HARREMANA ETA KOORDINAZIOA

Parte hartze prozesuan zehar koordinazio iraunkorra mantendu du aholkularitzak eskualdeko udalekin, prozesuaren aurkezpenetik hasi eta azken balorazioa egin arte.

Koordinazio eta komunikazio horretarako hainbat bide erabili dira:

- Aurrez aurreko bilera orokorrak: 3.
- E-mail bidezko komunikazioak.
- Hainbat alkatereko telefono bidezko harremana.
- On-line plataformen bidezko lankidetzak (wikiak).

Komunikazio bide horien artean e-mail bidezkoa izan da erabiliena. Izan ere, eskualdeko herri kopuru handiak asko baldintzatzen du udal ordezkari guztiak bilera presentzialetara erakartzea eta horregatik erabili dira gehiago e-mail eta wikien bidezko lankidetzarako lan-tresnak.

Udalekiko koordinazio eta komunikazioak hainbat helburu izan ditu atzean:

- Parte hartze prozesua aurkeztea eta hobetzeko iradokizunak jasotzea.
- Eskualdeari buruzko informazioa jasotzea.
- Bilera egun eta lekuen logistika antolatzea.
- Ideien sorkuntza prozesuan udalengandik ideiak jasotzea.
- Prozesuan zehar sortutako zailtasunei modu bateratuan aurre egitea.
- Herritarrak prozesuan parte hartzea erakartzea eta herri



mailako lanketa komunikatiboa indartzea, udaletako komunikazio arduradunekin batera.

- Herritarren ideien inguruko informazio kualitatiboa jasotzea.
- Herritarrek lehenetsitako proiektuen eta udalak izango dituzten erantzukizunaren berri ematea.
- Prozesuaren balorazioa egitea.

Parte hartze prozesuak hainbat herri ukitu ditu zuzenean. Parte hartze bilera guztietatik gehien hartu dituen Tolosa izan da eta hainbat izan dira horretarako arrazoiak: geografiari dagokionez, eskualdearen erdian dagoelako; biztanle kopuruari dagokionez, herri handiena delako nabarmen; mugikortasunari dagokionez, garraio publikoaren sarearen erdian dagoelako; eta herritarren mugikortasun-ohiturak kontuan hartuz, eskualdeko merkataritza gune nagusi izatearekin, eskualdeko herritarrek Tolosaratzeko joera handia dutelako.

Dena den, prozesuaren fase desberdinetan zehar (ideiak sortzekoa, lehenetsunak jartzekoa, azken proiektuak aukeratzekoa, balorazioa egitekoa...) eta bateko eta besteko foroen bilerekin, Tolosaldeko hainbat herritan izan du presentzia “fisikoa” parte hartze prozesuak.

Honatx prozesuan zehar herri bakoitzean egin diren bileren zerrenda:

Herria	Bilera kopurua	Bilera motak eta tokiak
Tolosa	7	-Udalentzako aurkezpen eta koordinazio bilerak (2) [Lehiberrin]. -Lehiberriko arduradunarekin bilera [Lehiberrin]. -Ideiak sortzeko bilera [udaletxean]. -Ideiak lehenesteko eta proiektuak aukeratzeko eskualdeko batzarrak (3) [Kultur Etxean eta Zerkausian].
Amasa-Villabona	4	-Talde eragilearen bilerak (3) [Subijana Jauregian]. -Ideiak sortzeko bilera [Subijana Jauregian].
Bidania-Goiatz	1	-Ideiak sortzeko bilera [Udaletxean].
Alegia	1	-Ideiak sortzeko bilera [Udaletxean].
Ibarra	1	-Ideiak sortzeko bilera [Ibarran].
Berrobi	1	-Udalen balorazio bilera [Udaletxean].
Anoeta	1	-Ideiak sortzeko bilera [Udaletxean].
Lizartza	1	-Ideiak sortzeko bilera [Udaletxean].

ESKUALDEKO KOMUNIKAZIOA ETA ZABALKUNDEA

Parte hartze prozesu orotan gako da komunikazio arloa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzazko prozesuan Aldundiak garrantzia handia eman dio komunikazioari. Partaidetzazko prozesua Gipuzkoako lau eskualdetan eraman denez

aurrera, komunikazio bateratua bermatze aldera, Aldundiko komunikazio arduradunek hartu dute komunikazio estrategia, mezu, euskarri eta ekintzen ardura nagusia.

Hauek izan dira Aldundiak Tolosaldeako parte hartze prozesuan aurrera eraman dituen komunikazio ekintzak:

- Ideiak sortzeko fasean etxez etxe bidalitako esku-orria.
- Bileretarako deiak egiteko kartelak.
- Komunikabideetarako bannerrak eta irratietarako kuñak.
- Prentsaurrekoak.
- Lehenetsitako 2 proiektuekin ateratako esku-orriak.
- Prozesuan momenturen baten parte hartu dutenentzako mailingak.
- Aukeratutako 5 proiektuekin ateratako esku-orriak.
- ...

Aldundiak aurrera eraman dituen ekintza horiez gain, Tolosaldean lanean jardun duen aholkularitzak (EMUNek) zein eskualdeko zenbait alkatek eta komunikazioko udal teknikariek hainbat ekintza komunikatibo egin dute:

- Aholkularitzaren eta eskualdeko alkate guztien prentsaurrekoa, prozesua aurkezteko eta herritarrak parte hartzera animatzeko helburua izan zuena.
- Aholkulariek eskainitako hainbat elkarriketa, eskualdeko irati-telebistetan eta prentsan.
- Udal komunikazio teknikariek egindako mailingak, sare sozialen bidezko zabalkundea eta udal webgune korporatiboen bidezko zabalkundea.
- Sare sozialetan aholkulariek eskualdeko eragileekin garatutako elkar-ekintza.
- Aholkularitzak Talde Eragileko kideentzako, bileretan parte hartu dutenentzako eta udal ordezkarietarako egindako mailingak.

Aipatutako komunikazio ekintza guztiek hainbat helburu izan dituzte:

- Partaidetzazko aurrekontuen prozesua aurkeztea.
- Aldundiaren aurrekontuen inguruko pedagogia egitea.
- Aurrekontuetarako ideiak emateko herritarrak animatzea.
- Parte hartze bileretara herritarrak erakartzea.
- Parte hartze bileretako emaitzak gizarteratzea.
- Parte hartze prozesuaren bilakaeraren eta emaitzen berri ematea bileretan parte hartu ez duten herritarrei.

PARTE HARTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzazko aurrekontuen prozesuan parte hartzeko hainbat aukera izan dute herritarrek: ideiak sortzeko fasean ekarpenak egin ahal izan dituzte posta-kutxen bidez, Internet bidez zein bileretan ideiak aurkeztuz; ideiak lehenesteko fasean, berriz, Aldundiak herritarrentzako antolatutako eskualdeko batzarretan parte hartu ahal izan dute; prozesu osoa gainbegiratzeko eta eskualderako irizpideak markatzeko aukera ere izan dute herritarrek, Talde Eragilean parte hartuz; eta, azkenik, Talde Eragileko kideek eskualdeko emaitzen berri Batzar Nagusietan emateko aukera izan dute.

Datozen lerrootan jaso ditugu parte hartzeko aukera horiek baliatu dituzten herritarren kopuruak, orokorrak zein generoaren arabera.

Ideiak sortzeko prozesuan parte hartu duten herritarrek eta ekarpenak egiteko erabili dituzten bideak:

- Herritarrengandik jasotako ideia kopurua: 212.
- Postaz jasotakoak: 103
- Internet bidez jasotakoak: 15
- Bileretan jasotakoak: 94



Herriko edo azpieskualdeko tailerretan parte hartu duten herritarrek:

- Amasa-Villabona: 9 herritar, 2 emakumezko eta 7 gizonezko.
- Alegia: 7 herritar, 2 emakumezko eta 5 gizonezko (dinamizatzaileak, emakumezko eta gizonezko bana).
- Anoeta: 5 herritar, 2 emakumezko eta 3 gizonezko (dinamizatzaileak, 2 emakumezko).

- Bidania-Goiatz: 9 herritar, 3 emakumezko eta 6 gizonezko (dinamizatzaileak, 2 emakumezko).
- Tolosa: 7 herritar, 5 emakumezko eta 2 gizonezko (dinamizatzaileak, 2 emakumezko eta gizonezko 1).
- Ibarra: 14 herritar, 4 emakumezko eta 10 gizonezko (dinamizatzaileak, 2 emakumezko).
- Lizartza: 10 herritar, 3 emakumezko eta 7 gizonezko (dinamizatzaileak, 2 emakumezko).

Herritarren ideiak lehenetsi eta aukeratzeko eskualdeko batzar irekietan parte hartu duten herritarrek:

- Tolosa (Kultur Etxean, 2014-06-10): 55 herritar, 25 emakumezko, 30 gizonezko (dinamizatzaileak, 2 emakumezko eta gizonezko bat).
- Tolosa (Zerkausian, 2014-09-23): 24 herritar, 15 emakumezko eta 9 gizonezko (hizlariak eta dinamizatzaileak, 3 emakumezko eta 2 gizonezko).
- Tolosa (Zerkausian, 2014-10-01): 53 herritar, 26 emakumezko eta 27 gizonezko (dinamizatzaileak, 2 emakumezko eta gizonezko bat).



Talde Eragilean parte hartu izan duten kideak:

- 21 herritar, 9 emakumezko eta 12 gizonezko.

Batzar Nagusietan Tolosaldean garatutako prozesuaren eta lortutako emaitzen berri ematen herritar hauek hartu dute parte:

- 4 herritar, 3 emakumezko eta gizonezko bat (aholkularia, gizonezkoa).



UROLA ERDIA

UROLA ERDIKO UDALEKIKO HARREMANA ETA KOORDINAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Partaidetzako Aurrekontuen proiektua bigarren aldiz burutu da Urola Erdian. Berau garatu eta aurrera eramateko eskualdea osatzen duten 5 udalerrietako ordezkariekin harreman zuzena mantendu da, bai logistika kontuetan, baita prozesuan zehar landu diren gai desberdinen jarraipena egiterakoan ere. Udalerriek izan duten parte hartzea eta inplikazioa desberdina izan da.

Udal ordezkarien parte hartzeari dagokionez, eskualdea osatzen duten 5 udalerriek gutxienez ordezkari bana izendatu dute koordinazio bileretan parte hartu eta prozesuan zeharreko erreferentziazko pertsona gisa. Bileretan parte hartu duten pertsonak normalean prozesu guztian zehar mantendu badira ere, kasuren batetan (Azkoitia) ez da ordezkari finkorik izendatu eta bilera bakoitzean pertsona desberdin batek parte hartu du. Jarraian udalerri bakoitzaren izenean parte hartu duten pertsonen izen abizenak eta karguak azaltzen dira:

Udalerria	Izen Abizenak	Kargua
Azkoitia	- Amaia Argarate	- Ingurumen Teknikaria
	- Esther Lizarralde	- Parte hartze zinegotzia
Azpeitia	- Leire Etxaniz	- Ingurumen Zinegotzia
Beizama	- Begoña Garmendia	- Alkatesa
Errezil	- Maria Jesus Salsamendi	- Alkatesa
Zestoa	- Ruben Alberdi	- Zinegotzia
	- Fernando	- Kultura teknikaria

Bileretan parte hartu duten ordezkarienez gain, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako alkateak prozesuan zehar informatuak egon dira baita ere, komunikazio guztiak ordezkarienez gain udalerri guztietako alkateei zuzendu baitzaizkie. Honetaz gain, eskualde mailan egin diren 3 bileretan 5 udalerrietako alkateen presentzia egon da.

Logistikari dagokionez, prozesuak iraun duen bitartean burutu diren bilerak udal desberdinetako lokal edo egoitzetan burutu dira, berauek uzteko prestutasuna egon delarik momentu oro.

Bileraren helburua	Udalerria	Lekua
Herritarren ekarpenak jasotzea	- Azkoitia	- Elkargunea
	- Azpeitia	- Udala
	- Azpeitia (Urrestilla)	- Jubilatuen elkarte
	- Beizama	- Udala
	- Errezil	- Borondegí Kultur Etxea
	- Zestoa	- Udala
	- Turismo eragileak	- Iraurgi Berritzen
	- Eragile ekonomikoak eta ikastetxeak	- Iraurgi Berritzen
Proposamenen lehenestea	- Lehen sektorea	- Urkome
	- Zestoa	- Udala
Proposamenen balorazioaren aurkezpena eta aukeraketa	- Azkoitia	- Elkargunea
	- Azpeitia	- Udala

Koordinazioa bermatzeko ondorengo **bilerak** burutu dira prozesuan zehar:

- Udaleko ordezkariekin burututako koordinazio bilerak:

Udaletako ordezkariekin 4 koordinazio bilera burutu dira eta berauek Azpeitian ospatu dira. Bilera hauetan ondorengo gaiak landu dira:

- Herritarren ekarpenak jasotzeko bilerak:

Herritarren ekarpenak jasotzeko 9 bilera egin dira denetara, ondorengo eran banatu direlarik: Azkoitia, Azpeitia (2), Beizama, Errezil eta Zestoa eta sektorekako 3 bilera (Urkomenen bitartez lehen sektoreko ordezkariak; Iraurgi berritzen-eko Turismo alorrak bideratuta, eskualdeko turismo arloko eta hoteletako ordezkariak; Iraurgi Lantze-en bidez eskualdeko enpresa eta ikastetxeetako ordezkariak).

- Talde sustatzailearen bilerak:

Talde sustatzailea udalerri desberdinetako ordezkariekin osatu da. Bertan udalerri gehienetako ordezkariak egon badira ere, ez da lortu Beizamako

ordezkaririk eta Zestoari dagokionez, bilera bakar batetan parte hartu dute. Talde sustatzailearen osaketa ondorengoa izan da:

Udalerria	Izen Abizenak
Azkoitia	- Miren Urteaga - Jabier Albizuri
Azpeitia	- Jon Garagarza - Angel Oyarzabal
Beizama	-
Errezil	- Xebera Agirretxe - Begoña Uzkudun
Zestoa	- Amancay Gaztañaga - M ^a Jesus Izeta

Talde sustatzailearen bilera guztiak Azpeitiko Sindikatu Zaharra deritzon eraikinean egin dira.

- Eskualdeko bilerak:

Ekarpenak jaso ondoren, berauek modu bateratuan landu dira eskualdeko bileretan, denetara 3 bilera ospatu direlarik:

Bilera zbk	Tokia	Helburua
1	Zestoa	- 2014ko prozesuan aukeratutako proposamenen jarraipena - Herritarren proposamenen aurkezpena eta lehentasunezko proposamenen identifikazioa
2	Azkoitia	- 2014ko prozesuan aukeratutako proposamenen jarraipena - Lehenetsitako proposamenen balorazioaren aurkezpena
3	Azpeitia	- Proposamenen aukeraketa

KOMUNIKAZIOA ETA DIFUSIOA

Komunikazioa eta difusioari dagokienez, udalekin batera landu da eta bide ezberdinak erabili dira:

Kartelak udalerrietan: proiektuaren bi faseetan ipini dira kartelak (hasierako fasean eta proposamenak lehenetsi ondoren). Guztira, fase bakoitzean, 18 kartel ipini dira eskualde osoan (Azpeitian eta Azkoitian 6 eta Beizama, Errezil eta Zestoa, 2).

Eskuorrien banaketa eta buzoiak: proiektuaren bi faseetan (hasierako fasean eta proposamenak lehenetsi ondoren) eskualdeko etxe guztietara eskuorriak bidali dira (ez da inzidentziarik erregistratu). Honez gain, hasierako fasean 100 eskuorri gehiago banatu dira buzoiekin batera jartzeko.

Udalen **webguneak** eta sare sozialak: udal webgune aktiboa eta sare sozialak erabiltzen dituzten udalerriek bide hauek erabili dituzte tailerren berri emateko.

Proiektuaren webgunea www.aurrokontuahobetzen.net: tailer bakoitzaren ostean berri labur bat idatzi da eta tailerretako argazkiak bidali dira bertan zabaltzeko.

Eskualdeko komunikabideak: proiektuaren fase ezberdinetan:

HASIERAKO TAILERRAK

- **Uztarrrian**, idatziz zein on line
- **Erlo Tb**: 20 segunduko bideoa
- **Urola Kostako Hitza**: idatzian eta on line

PROIEKTUAK AUKERATZEKO TAILERRAK

- **Uztarrrian**, idatziz zein on line
- **Urola Kostako Hitza**: idatzian eta on line
- **Diario Vasco**: idatzian eta on line.

Honez gain, prozesuan parte hartu duten eragileei informazioa eta gonbidapen zuzenak bidali dizkie. Udalek, euren aldetik, dauzkaten kontaktu zerrendetara ere tailer bakoitzeko gonbidapen zuzena ere bidali die.

PARTE HARTZEA

Partaidetzazko aurrekontuen proiektuaren testuinguruan parte hartzea mekanismo desberdinak egon dira fase desberdinetan.

Proposamenen bilketa:

Lehen fasean herritarrek eskualdea hobetzeko ekintzen proposamenak luzatu dituzte, honetarako bide edo kanal desberdinak eskura izan dituztelarik: aurrez aurreko bilerak, udalerrri guztietan kokatutako buzoien bidez eta www.aurrokontuahobetzen.net web orriaren bidez.

Urola Erdian, aurrez aurreko bileretan parte hartu duten pertsonen kopurua oso eskasa izan da. 5 udalerriak kontutan hartuta, denetara 26 pertsonak parte hartu dute (Azkoitia 4; Azpeitia 8; Beizama 6; Errezil 5 eta Zestoa 3). Honetaz gain, aipatu denez, sektorekako 3 bilera egin dira baita ere, bertan beste 18 pertsonak parte hartuz. Honela, proposamenen bilketa bere osotasunean kontsideratuz, 44 pertsonak parte hartu dute.

Udalerrietan jarrita egon diren buzoiei dagokionez, 13 pertsona desberdinen ekarpenak jaso dira beraietan eta web orriaren bidez 12 pertsonak parte hartu dute.

Laburbilduz, herritarren proposamenak jasotzeko martxan jarri diren bide edo kanal desberdinak kontutan hartuz, denetara 69 pertsonak parte hartu dute lehen fase honetan, horietatik 39 gizonezkoak izan dira eta 31 emakumezkoak.

Proposamenak lehenesteko bilera:

Proposamen guztiak jasota, Zestoa hauek aurkeztu eta lehenesteko eskualdeko bilera ospatu zen. Bilera honetan denetara 29 pertsonak izena eman bazuten ere, zenbait pertsona erregistratu gabe joan ziren. Parte hartzaileen perfilari dagokionez, 13 emakumezko eta 16 gizonezkoak parte hartu zuten, adin tarte zabala izan zelarik eta gazteen presentzia nabaria.

Proposamenen balorazioaren aurkezpena eta aukeraketarako bilerak:

Testuinguru honetan bi bilera burutu ziren:

Lehenengo bilera Azkoitian ospatu zen, eskualdean lehenetsi ziren 19 proposamenen inguruan Foru Aldundiko Teknikariek egindako balorazioa aurkeztu zelarik. Bertan 28 pertsonak izen eman zuten, nahiz eta oraingoan ere errealitatean jende gehiagok parte hartu zuen. Kasu honetan emakumezkoen presentzia gainontzeko bileretakoa baina baxuagoa izan zen, 9 emakumezko eta 19 gizonezko egon baitziren.

Azpeitian burutu zen proposamenen aukeraketarekin lotutako 2. Bileran 36 pertsonak parte hartu zuten. Helburua bilerak hartzea zen bilera honetan 19 gizonezko eta 17 emakumezkoak parte hartu zuten.

Laburbilduz,

Fasea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Parte hartzaileak guztira
Azkoitia	- Amaia Argarate - Esther Lizarralde	- Ingurumen Teknikaria - Parte hartze zinegotzia	-
Azpeitia	- Leire Etxaniz	- Ingurumen Zinegotzia	-
Beizama	- Begoña Garmendia	- Alkatesa	-
Errezil	- Maria Jesus Salsamendi	- Alkatesa	-
Zestoa	- Ruben Alberdi - Fernando	- Zinegotzia - Kultura teknikaria	-

3. HERRITARREN BILERAK: PROPOSAMENAK ETA EKARPENAK

BIDASOALDEA

Aurretik esan den bezala, herritarren ekarpenak bilera presentzialetan zein fitxak betez (buzoietan eta on-line) jaso ziren. Erabakiak, aldiz, bileretan hartu dira, hortaz, paperekoa eta internet proposamenak egiteko bidea baino ez dira izan.

Prozesuaren hasieran bilera bat egin zen Hondarribian eta bost Irunen . Saio horietan prozesuaren berri eman, eurekin batera ekarpenak landu, eta ekarpen gehiago jasotzeko bideak aztertu ziren. Herri bakoitzeko bileretara bertaratutakoen artean bina pertsona aukeratu ziren Talde Sustatzailea osatzeko. Aurrez, talde sektorialak osatzeko ahalegina egin zen, proposamenak sektorialki lantzeko asmoarekin, arlo horietako eragileekin batera: emakumeekin, gazteekin eta beste jatorri bateko herritarrekin. Lehen taldea baino ez genuen osatzerik izan, eta horretan ere, bi pertsonak baino ez zuten parte hartu. Nolanahi ere, eskualdeko bi emakume talde ezberdineko kideak ziren, eta euren taldean landutako proposamenak ekarri zituzten.



Eskualde-mailako hiru bilera egin ziren, herritar denei zabalik hauek ere. Eskualdeko lehendabiziko bileran herrietako bost batzarretan, zein paperez nahiz on-line bidez jasotako ekarpenak aurkeztu ziren. Guztira 135 proposamen izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpetentziakoak ez ziren proiektuak baztertu ondoren. Proiektuak izaeraren (eskualdeko proiektuak edo herrikoak ziren), eta arloaren (Aldundiko zein departamentutan kokatuko litzatekeen) arabera sailkatuta aurkeztu ziren, aurrez talde sustatzaileak proposaturiko irizpideak aintzat hartuta, irizpide gehien betetzen zituztenetik gutxien betetzen zituztenetara ordenaturik. Herritarrek, bilera horretan, proiektuak lehenetsi zituzten, eta ondoren, puntuaziorik altuena jaso zuten 23 proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundira bideratu ziren, bertako teknikariek horiek baloratu eta ekonomikoki kuantifika zituzten.

Bigarren bileran, berriz, Aldundiko teknikariek egindako txostenak aurkeztu, zalantzak argitu, eta proposamenak lehenetsi ziren.

Hirugarren bileran lehenespen horren arabera, 500.000 euroekin zein proposamen gauzatu erabaki zen.

Herrikako bileretan zein internet eta buzoi bidez, guztira 135 proposamen egin ziren prozesuan zehar. Arloka haxe da banaketa



Ondoko taulan jaso ditugu proposamen kopurua departamentuaren arabera:

Arloa	Proposamen-kopurua
Euskara, Herritarren partaidetza, Berdintasuna, Migrazioa eta Aniztasuna, Giza Eskubideak eta oroimen historikoa:	17
Kultura, Gazteria eta Kirola	31
Gizarte Politika (dependentzia dute pertsonen arreta, adinekoak, adingabeak, genero-indarkeria, elkartasuna, boluntarioak...):	20
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa:	15
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa (garapen iraunkorrerako sustapena, baliabide naturalak – ura, energia-, hondartzen garbiketa, hornidura eta saneamendu sistema, hondakinak, baso-baliabideak, mendiak, naturaren kontserbazioa...):	25

Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak (garraioa, bizikleta-sarea, bide-sarea, errepide-sarea...):	27
GUZTIRA	135

Eskualdeko lehen saioan proposamen guztiak aurkeztu ziren eta Talde Sustatzaileak landutako irizpideak azaldu ondoren, talde txikitan aztertu eta lehentasunen arabera sailkatu zituzten. Esan beharra dago, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu zituela zenbait irizpide eta horiek Talde Sustatzailearekin kontrastatu eta osatu egin ziren. Irizpide horiek proposamenak ordenatzeko erabili ziren, baita parte hartzaileen artean



gogoeta eragiteko ere. Hala, irizpideen betetze mailak ondorio zuzenik ez edukita ere, proposamenak lehenesterakoan aintzat hartzeko eskatu zitzaaien parte hartzaileei

Ondoren Talde Sustatzaileak adostutako irizpideak jaso ditugu.

NORI ZUZENDUAK DAUDEN ARABERAKO IRIZPIDEAK	
1	Genero berdintasuna bultzatzea
2	Bazterketa sozialeko arriskuan dauden herritarrak babestea (langabeak, etorri-berriak, gutxiengo etnikoak, adinekoak...)
3	Minusbaliotasunak dituzten herritarren aldeko proposamenak izatea
PROPOSAMENEN EDUKIAREN ARABERAKO IRIZPIDEAK	
4	Eskualdea osotasunean aintzat hartzen duten proposamenak izatea. Eragina denongana iristea. Denon artean zerbait egiteko aukera baliatzea
5	Aukeratutako proposamenek herri eta auzo guztietan eragina izatea. Herri/auzoen arteko banaketa eta oreka bermatzea. Auzoetan dauden beharrak aintzat hartzea, bereziki herri txikienetakoak
6	Inklusioa, aniztasuna, tolerantzia, kulturartekotasuna... bultzatzea. Justizia soziala bultzatzea. Enplegua (epe luzekoa eta kalitatezkoa) bultzatzea.
7	Herritar sare autonomoa eta parte hartzailea bideratzea, edota herritarren arteko sinergiak sortzea. Auzolana, batzarra eta herri-ondasunak sustatzea. Herritarrak ahalmentzea
8	Ingurumena, garapen iraunkorra eta jasangarritasuna sustatzea. Burujabetza (elikagaiena, energetikoa...) bultzatzea.
9	Tokiko kontsumoa eta ekonomia sustatzen duten proposamenak, elkartasunean oinarrituak eta jasangarriak
10	Euskararen normalizaziorako eta erabilera sustatzeko lagungarri izatea
INBERTSIOAREN EDO MANTENUAREN ARABERAKO IRIZPIDEAK	
11	Herrietan dauden ase gabeko azpiegitura eta ekipamendu beharrei erantzutea, lurraldearen orekaren barruan. Herrietako oinarritzko beharrei erantzutea. Dauden azpiegiturak aprobetxatzea eta berriz pentsatzea, herritarren beharrei erantzuna ematea, eta balio anitzetarako izatea
12	Denboran iraunkorrak izatea. Egitasmo txikiak lehenestea, azpiegitura handien aldean. Etorkizunean bertako baliabideak ustiatzeko pizgarria izatea
EMAITZEN IKUSPENAREN ARABERAKO IRIZPIDEAK	
13	Egingo diren ekimenak herritarrek epe motzean antzematea, ikusi/ukitu daitezkeen kontuak izatea

Aurreko irizpideak kontuan izanda herritarrek proposamenak ordenatu zituzten. Honako taulak jasotzen ditu, batetik, ordenatutako proposamenak eta, bestetik, Aldundiko departamentuek egindako kalkulu ekonomikoak eta oharrak:

Zb.	PROPOSAMENA	KALKULU EKONOMIKOAK	OHAR TEKNIKOAK
1	GERRIKO AGROEKOLOGIKOA: lur publikoak agroaldea bilakatu, lur pribatuekin zesio kontratuak sinatu, baratze parkeak, baratze sozialak...	Erabakitzeko	Ekimen profesional pribatua edo garapen agentziaren bidez egin beharko litzateke.
2	BALIABIDERIK GABEKO jendearentzako ATERPEA, eraikinen bat egokituz	300.000	Udal konpetentziakoa. Aldundiak bere gain eguneko aterpe espezializatu bezala. Honen osagarri litzatekeen zerbitzu bat martxan jartzen ari dira Irunen.
3	BIDEGORRIEN sarea osatzea. Hendaia-Irun-Hondarribia lotura. Landetxa-Hondarribia-Jaizubia.	4.000.000	Ez da bideragarria, ez ekonomikoki, ez teknikoki. Proiektuak idatzi gabe daude.

	Belaskoenea-Lapize. Artia-Behobia. Egungoak elkarren artean lotu		Proiektuak idaztea 150.000 euroko kostua du, eta 2015ean egingo du Aldundiak, eta 2016-2017an lanak hasi. Zati batzuk Irun eta Hondarribiko Udalaren eskumenekoak.
4	ERAIKINEN NARRIADURA mailaren azterketa orokorra egin, birgaitzeko hartu beharreko neurriak zehazteko: auzoetako irisgarritasuna, auzoetako ekipamendu beharrak, eta eraikinen egoera		Udal eskumenekoa da.
5	Irun-Behobia zatian AUTOPISTA DOANEKOA izatea	---	Sarreraren kapitulua aldatzea dakar, eta hori ezinezkoa da.
6	EZGAITASUNAK dituzten pertsonen PARTAIDETZA sustatu eskualdeko kultura eta gizarte ekintzetan. AISIALDIKO ekintzak	Erabakitzeke	Udal edo elkarte baten izenean egin beharko litzateke. Kopurua zehazteke.
7	Bidasoaldeko EMAKUMEEN ETXEA, bertako emakume elkarteek kudeatua, eta belaunaldi ezberdinetako jendearentzat ekintzak izango dituen	Partaidetza prozesua: 15.000 Lokala egokitzea: 40.000 (gehienez ere) Programazioa garatzea eta kudeatzea: 20.000 (gehienez ere)	Baldintzatua parte-hartze prozesu baten emaitzarekin. Udal edo elkarte baten izenean.
8	HIRI-ARTEKO AUTOBUS zerbitzua: Hondarribia-Irun-Hendaia	--	Irun-Hondarribia linea badago, Hendaia zabaltea Espainiako Gobernuaren konpetentzia da, Gipuzkoak ez du eskuduntzarik.
9	ARRAZISMOA, HOMOFobia ETA JOKAERA SEXISTEN kontrako programa eta ekintzak (trebakuntza bereziki)	21.000	Udalei diru-laguntza
10	Baserritarren mundua berreskuratzeko KOOPERATIBAK sortzea, gazteak erakartzeko	Erabakitzeke	Ekimen profesional pribatua edo garapen agentziaren bidez egin beharko litzateke.
11	ALARDE PUBLIKO parekidea lortzeko lanketa egitea (kanpainak, kontzientiazio lana, sentsibilizazioa...)	25.000	Sentsibilizazio-kanpaina, Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak gatazka konpontzeko abian jarritako lan-lerroen bidez.
12	Gazteen artean BERDINTASUNA lantzeko eta INDARKERIA MATXISTA ekiditeko PLANA. Ahalmentzea (sare sozialetan kanpainak, hezkuntza, aisialdian, Gaztelekuan...)	Malgua (zehaztu gabea)	Berdin barik programaren bidez egiten da. Udalari diru-laguntza

13	Hiriko hainbat auzotan HAURRENTZAT ESPAZIO PUBLIKOA berreskuratzeko proiektua, espazioen diseinuan haurren PARTAIDETZA zuzenarekin	20.000	Haurren parte-hartze prozesua bakarrik (udalekin adostu beharrekoa). Ondoren, ejekuzioa, udalen esku legoke.
14	Landetxa-Olaberria ERREPIDEA KONPONTZEA	104.000	
15	EUSKARAZKO KULTUR PROGRAMA bat Irun eta Hondarribian	20.000-35.000	Sareuskaren baitan sartu
16	ESTALPEKO KIROL EREMUA Gamecho Errandoneako pabilioietan. Kirol eremua BELASKOENEAN	Erabakitzeko	Proposamen zehatzago baten behara aurrekontua zehazteko.
17	Aiako Harria PARKE NATURALA HEDATU, Landetxa, Lapize, Olaberria eta Ibarla auzoetara		Eusko Jaurlaritzaren eskumena da. Aldundiak tramitea abiatzea eska dezake, ez besterik.
18	KOOPERATIBEN sorrera bultzatzeko plana	Erabakitzeko	Ekimen profesional pribatua edo garapen agentziaren bidez egin beharko litzateke.
19	BARATZEAK sortzeko lur publikoen bankua		Udalaren eskumenekoa
20	Adinekoentzako zerbitzuen sare soziala hobetu: ADINEKOENTZAKO ESPAZIOAK auzoetan, elkartu daitezen eta eurentzako jarduerak antolatu ahal izateko.		Udalaren eskumenekoa.
21	ITSASOKO PRODUKTUEN kontserbak egiteko EMAKUMEEN KOOPERATIBAK sustatzea	Erabakitzeko	Ekimen profesional pribatua edo garapen agentziaren bidez egin beharko litzateke.
22	KULTUR ekitaldi gehiago KALEAN		Udalen eskumenekoa
23	Gai estrategikoen inguruan PARTAIDETZA-PROZESUAK sustatzea, herrian zein eskualdean. Partaidetzarako sistema iraunkor bat sortu. Gardentasunerako neurriak hartu	40.000	Udalekin adostu beharko litzateke

ESKUALDEKO BIGARREN SAIOAN LEHENETSITAKOAK

Aldundiko teknikariek egindako proiektuen inguruko balorazioak eta azalpenak aurkeztu ondoren, aztertu egin ziren eta lehenesteko bozketa egin zen. Pertsona bakoitzak 5 proiektu aukeratu zituen, eta 1etik 5era puntuatu zituen, 5a izanik lehentasun maila altuena duen proiektua. Ondorengo taulan jaso ditugu saio horretan ateratako lehentasunak eta Aldundiko sailtako teknikarien oharrak:

ORDENA	PROPOSAMENA	BOZKA KOP.	AURREKONTUA	OHARRAK
1.	BALIABIDERIK GABEKO jendearentzako ATERPEA, eraikinen bat egokituz	21	300.000	Bertako bizilagunen behar sozialei erantzuteko eguneko zentroa. GFAko Gizarte Politikako Departamentuak kudeatua
2.	Bidasoaldeko EMAKUMEEN ETXEA, bertako emakume elkarteek kudeatua, eta belaunaldi ezberdinetako jendearentzat ekintzak izango dituen	20	75.000	Parte-hartze prozesu landuko du GFAko Berdintasun Zuzendaritzak, emakume elkarteekin proiektua zehazteko
3.	GERRIKO AGROEKOLOGIKOA: lur publikoak agroaldea bilakatu, lur pribatuarekin zehazki kontratuak sinatu, baratze parkeak, baratze sozialak...	19	40.000	Bidasoaldean dagoeneko martxan dauden proiektuetatik abiatuta, gerriko agroekologikoa osatzeko bidean inplikaturako eragileen arteko lanketa egitea, GFAk bideratuta
4.	EZGAITASUNAK dituzten pertsonen PARTAIDETZA sustatu eskualdeko kultura eta gizarte ekintzetan. AISIALDIKO ekintzak	13	50.000	Bidasoaldeko ezgaitasunak lantzen dituzten elkarteekin landuko du GFAk
5.	Hiriko hainbat auzotan HAURRENTZAT ESPAZIO PUBLIKOA berreskuratzeko proiektua, espazioen diseinuan haurren PARTAIDETZA zuzenarekin	10	20.000	Parte-hartze prozesua bakarrik. Ondorengo exekuzioa udalen esku
5	KOOPERATIBAK sustatzeko programa: sentsibilizazioa, trebakuntza eta kooperatiben sorrerarako laguntzak.	10	100.000	Proposamenean bateratu egin dira gazteak baserrietara hurbiltzeko kooperatibak bultzatzea; arrain kontserben inguruko kooperatibak sustatzea emakumeentzat; eta kooperatibak orokorrean sustatzeko programa.
7.	ALARDE PUBLIKO parekidea lortzeko lanketa egitea (kanpainak, kontzientziazio lana, sentsibilizazioa...)	7	25.000	GFAko Berdintasun Zuzendaritzak kudeatua
8.	ARRAZISMOA, HOMOFOBIA ETA JOKAERA SEXISTEN kontrako programa eta ekintzak (trebakuntza	6	21.000	GFAko Gizarte Politikako Departamentuak kudeatua

ORDENA	PROPOSAMENA	BOZKA KOP.	AURREKONTUA	OHARRAK
	bereziki)			
9.	EUSKARAZKO KULTUR PROGRAMA bat Irun eta Hondarribian	5	20.000-35.000	Sareuska programaren baitan garatzeko (Hego Lapurdi, Bortziriak, Txingudi)
10.	Gazteen artean BERDINTASUNA lantzeko eta INDARKERIA MATXISTA ekiditeko PLANA. Ahalmentzea (sare sozialetan kanpainak, hezkuntza, aisialdian, Gaztelekuan...)	3	30.000	GFAko Berdintasunerako Zuzendaritzak kudeatua
10.	Landetxa-Olaberria ERREPIDEA KONPONTZEA	3	104.000	
12.	Gai estrategikoen inguruan PARTAIDETZA-PROZESUAK sustatzea, herrian zein eskualdean. Partaidetzarako sistema iraunkor bat	2	40.000	Udalekin adostu beharrekoa
13.	ESTALPEKO KIROL EREMUA Gamecho Errandoneako pabilioietan. Kirol eremua BELASKOENEA	0		Proposamen zehatzago baten beharra aurrekontua zehazteko.

ESKUALDEKO HIRUGARREN SAIOAN LEHENETSITAKOAK

Baliabiderik gabeko jendearentzako aterpearen gaiak eztabaida eragin zuen. Prozesuan zehar proposamenik baloratuena izan da. Gipuzkoako eskualde bakarra da horrelako zerbitzurik gabea, eta parte-hartzaileentzat erabat premiazkoa da, baina ez dute uste horrelako proiektu bat partaidetza aurrekontuen gainean egin behar denik, gainerako asmo eta proiektuak alde batera utziz. Hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote, legez egin behar den zentro hori 2015ean egin dezala.

Gaiak erabateko adostasunik ez zuenez, bost proposamenak jarri ziren bozkatzeko. Partaide bakoitzak proposamenetako bat bozkatu ahal izan zuen eta azkenean Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu diote Baliabiderik gabeko jendearentzako aterpea, gainerako proposamenetatik alde batera uzteko eta 2015ean egin dezala.

Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak Bidasoaldeko herritarren esku utzi dituen 500.000€ horiek honako proposamenak lantzeko izatea adostu dute parte-hartzaileek:



ORDENA	PROPOSAMENA	AURREKONTU
1.	Bidasoaldeko EMAKUMEEN ETXEA, bertako emakume elkarteek kudeatua, eta belaunaldi ezberdinetako jendearentzat ekintzak izango dituen	134.000
2.	GERRIKO AGROEKOLOGIKOA: lur publikoak agroaldea bilakatu, lur pribatuekin zesio kontratuak sinatu, baratze parkeak, baratze sozialak...	100.000
3.	EZGAITASUNAK dituzten pertsonen PARTAIDETZA sustatu eskualdeko kultura eta gizarte ekintzetan. AISIALDIKO ekintzak	50.000
4.	Hiriko hainbat auzotan HAURRENTZAT ESPAZIO PUBLIKOA berreskuratzeko proiektua, espazioen diseinuan haurren PARTAIDETZA zuzenarekin	20.000
5.	KOOPERATIBEN sorrera bultzatzeko plana (gazteak baserri mundura hurbiltzeko, emakumeak arrain kontserbetan aritzeko, kooperatibak orokorrean...): sentsibilizazioa, formakuntza eta kooperatiben sorrerarako diru-laguntzak	100.000
6.	ALARDE PUBLIKO parekidea lortzeko lanketa egitea (kanpainak, kontzientziazio lana, sentsibilizazioa...)	25.000
7.	ARRAZISMOA, HOMOFOBIA ETA JOKAERA SEXISTEN kontrako programa eta ekintzak (trebakuntza bereziki)	21.000
8.	EUSKARAZKO KULTUR PROGRAMA bat Irun eta Hondarribian (Sareuskaren baitan)	20.000
9.	Gazteen artean BERDINTASUNA lantzeko eta indarkeria matxista ekiditeko PLANA. Ahalmentzea (sare sozialetan kanpainak, hezkuntza, aisialdian, Gaztelekuan...)	30.000

Partaideek Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi nahi diote, aukeratuak izan ez arren, badirela beste bi proiektu aintzat hartu beharko liratekeenak: Olaberria eta Landetxa arteko errepidea eta Aiako Harria Parke Naturala zabaltzeko eskaria egitea Eusko Jaularitzari, Irun eta Hondarribiko Udalekin batera.

OARSOALDEA

Oarsoaldea izan da proposamen gehien jaso diren eskualdea, baita interneta parte hartzeko bide gisa gehien erabili den zonaldea. Nahiz eta tailerrak elkarrekin lan egiteko eta eskualdea hobetzeko proposamenak pentsatzeko gunea izaten jarraitzen duten. Jarraian, kanal bakoitzaren bidez jasotako proposamen-kopurua azaltzen da:

Kanala	Proposamen zkia.
Web-orria	133
Postontzietan esku-orriak	106
Tailerrak	148
GUZTIRA	387

Proposamen hauek sektore nahiz era desberdinetakoak izan dira, baina batez ere, kultura eta gazteriarekin zerikusia duten proposamenak atera dira (%23), baita mugikortasuneko eta azpiegituren inguruko (%19,7) eta ingurumena eta lurralde antolamendurako (19,2) proposamen asko ere. Baina anitzak izan dira ere berrikuntza, landa-garapena eta turismoko proposamenak (%15,9). Kantitate txikiagoan azaldu dira gizarte-politikako proposamenak (%14) edo zeharkako gaietakoak (berdintasuna, euskara, giza eskubideak eta memoria historikoa, eta partaidetza) (%8,2). Beraz, honek guztiak herritarren nahiaren inguruko nozio batzuk ematen ditu.

Internet bidez jasotako proposamenetan zein udalerritik egiten den jaso ez dela kontuan izanda, eta beste kanalak aztertuz, udalerri bakoitzetik zein partaidetza izan

den jakin ahal izan dugu. Eta ondorio gisa, proposamen gehien oartzundarrendandik jaso direla esan dezakegu.

Udalerria	Proposamen zkia.
Errenteria	46
Pasaia	57
Lezo	38
Oiartzun	80

Horrela bada, guztira jaso ziren ia 400 proposamena aurkeztu ziren 1. eskualdeko bileran, baztertze- eta leheneste- lan gogorra egin behar izan zen. Talde txikitan egin zen lan, elkarrizketa eta eztabaida sustatzeko, baina lan handi lortu ziren akordioak.

Honakoak izan ziren aurre-aukeratutako proposamenak:

Lehenengo eskualde tailerrean lehenetsitako 20 proposamenak

Bidegorri-sareen konexioa hedatu: Lezotik Donibanera, espaloiak zabalduz...

Auzolan egitasmoak martxan jarri, herri partaidetzaren espresio praktiko modura, bereziki gazteak jendartearen onurarako diren zerbitzuetan gehiago inplikatzuz. Lan posibleak: ibaiak garbitu, zuhaitz egokiak landatu, Jaizkibelgo herri-bideak mantendu, Trintxerpeko eskonbroak batu, eskualdeko ondarea mantendu...

Faseak: Egitasmoak zehaztu, kontzientziazio kanpainak egin, behar den materialaz hornitu eta egutegia zehaztu.

Hondakin organikoa kudeatzeko planta txiki bat eskualdean (Austriako eredua). Aurretik, hondakin kopurua zehaztu beharko litzateke horretara egokitzeko.

Eskualdeko 4 udalen konpromisoarekin, nekazaritza lurren erreserba sortzea nekazari gazteentzat (landa lurren alokairua) herri bakoitzean. Eta diru-laguntzak eman: landa-garapenerako; hasi-berri diren gazte nekazari eta abeltzaintzako; kooperatiba eta azpiegiturentzako...

Gaixo psikikoen lan-integrazioa bultzatzeko lanpostuen sorrera, tokian tokiko elkarteak lagunduz eta baratzak sustatuz. (Arraztalo)

Indarkeria matxista sufritu duten emakumeei zuzendutako arreta integralerako proiektu pilotua. Prebentziorako informazio/formazio- gunea, asteroko aholkularitza juridikoa eta psikologikoa eskainiko duena (bestelako herrietan dauden zerbitzuen antzekoa) eta eskualdean zehar mugikorra izango dena.

Arrazoi etnikoengatik diskriminazioari aurre egiteko sare baten sorrera. Oarsoaldeko SOS Arrazakeriaren proposamena.

Berdintasun teknikarien lan-talde bat osatu herri guztietan jaiak parekide egiteko planak jorratuko dituen. Eskualdeko jaietan erreferentziazko urgentzia-telefonoa egotea aztertu (behar bada Udaltzaingoarekin harremanean).

Herrigintzako kohesioa bultzatzen duen proiektua. Euskal Herriko herri desberdinen arteko elkar bizitza sustatuko duten gai konkretuen inguruko programak egitea. Honen adibide gisa Errigora ekimena litzake.

Oiartzungo Gazte Izanak daukan Etxea (jubilatuak) irisgarritasun-legea betetzea.

Euskal Herritik kanpo jaiotakoei euskara ikasteko erraztasun eta baliabideak eman, integrazioa landuz eta ikasleen motibazio eta aukera desberdinak kontuan hartuz (denbora, lana, ekonomia...). Klaseak doakoak izan daitezke.

Errenteriako goiko auzoetara igotzeko igogailuen sarea osatu. Eskualdeko oztopo arkitektonikoak ekiditeko azterketa egiten.

Errenteriako oroimen historikorako museoa. Gaiak: a) Bilakaera historikoa, b) iragan Industrial, c) herri borrokariaren historia, eta d) etorkizuna: herri transformazioa eta sormena. Bateragarria izan zitekeen Euskal Herriko Jantzi tradizionalaren Museoarekin.

Ibilbide zirkularra planifikatu eskualdeko leku berezi ezberdinetatik (espazio horiek promozionatzeko helburuarekin): San Pedroko Ondartxo, Astillero, San Pedroko Eliza, Donibane, Lezoko eliza, Errenteriako zenbait gune...

Eskualdean ekoizten diren produktuak salgai jartzea. Hiru printzipioetan oinarrituko litzateke: baliabide endogenoak erabiltzea, produktu ekologikoak izatea eta euskara sustatzea. Gainera, enplegua sortuko zen eta nekazariei bultzada emango litzaieke, eta krisi ekonomikoaren ondorioz itxitako dendak berpizteko saiakerarekin uztartu daiteke. Ekintzailatza eta berrikuntza sustatu gazte eta langabetuen artean: enpresa-sorguneak eta coworkinga... Banku etikoak, trukea, herri-txanpona, etab. bultzatu. Ekonomia soziala bultzatu.

Herritarrek erabiltzeko baratzak/lurrak erosi, prestatu etab. norbere kontsumorako. Herritarrentzat, langabetuak, etab

Energia: Energia berriztagarriak bultzatzeko plana: garraio publiko garbiak, adibidez.

Auto-kudeaketan oinarritutako garapenerako lankidetzak proiektua Nikaraguan. Proiektuaren oinarriak honakoak dira: feminismoa, emakumeen lan-munduratzea eta ahalduztzea, elikadura subiranotasuna (kontsumo-taldeak, eko-nekazaritza sostengarria...), erabilera komunitarioarako espazioa, lekuko kultura eta ohiturak indartzea, generazio arteko ezagutza-trukea eragitea, internazionalismoa...

San Pedroko PROISA eraikina birgaitu Oarsoaldeko behar soziokulturalak asetzeko. Donostiako ibilbide kulturalak Oarsoaldera gerturatu. Sormen- eta berrikuntza- laborategia sortu. Memoria historikoa mantendu. Oarsoaldera eta Donostialdeara irekitako prozesua.

Motoraren ibilbidea eta maiztasuna zabaldu, ibilbide zirkularra eginez (Trintxerpe, San Joan, Lezo, Antxo...). Ur bidezko bidea, erakargarria izan dadila turismoarentzako eta barrutiak komunikatzea.

Proposamen hauek guztiak Aldundiko pertsonal teknikoak aztertuan izan dira eta batzuk baztertu zituzten Aldundiko eskumena ez izateagatik, beste batzuk prozesuak duen aurrekontua baino koste altuagoa izanagatik (500.000€), eta beste batzuk dagokion departamentuaren egungo ildo politiko-teknikoarekin bat ez etortzeagatik.

- Lezo - Donibaneko bidegorria
- Hondakin organikoen planta
- Indarkeria matxista jasandako emakumeei zuzendutako arretaren inguruko proiektu pilotua
- Oiartzungo Jubilatuen Etxea eraberritzea
- Donibaneko motoraren zerbitzua zabaltzea
- Motoraren zerbitzua MUGI ordainketa-sisteman sartzea

Horrela bada, gelditu ziren proposamenak eskualdeko tailerretan kolektiboki landu ziren, poliki-poliki Aldundiak eskainitako aurrekontuarekin finantzatzeko proposamen-zerrenda definitzen joateko. Zeregin hauetan, agerian geratu ziren herritarren lehentasunak:

- Nekazaritzan oinarritutako garapen ekonomikoa:
 - o Lehen sektorea indartzeko beharra
 - o Produktu endogeno eta ekologikoen promozioa eta kontsumoa
 - o Lurraren lanketa bidezko ekintzailetza sustatzea
 - o Sormen, coworking, ekonomia sozialeko ekimenak eragitea
- Energia berriztagarrien promozioa:
 - o Energia berriztagarrien bidez subiranotasun energetikoa bultzatzea: geltoki berdeak, eraikin publikoen efizientzia energetikoa, garraio publiko garbia...
 - o Subiranotasun energetikorako diagnostiko eta plana egitea.
 - o Etxean energia berriztagarrien erabileraz eta aukeraz gozatzeko (in)formazioa eskaini herritarrei.

Hauetan gain, asko errepikatu ziren beste bi lan-ildo ere izan ziren:

- Partaidetza sustatu eta dinamizatzeko beharra, jendarte-kohesio bati begira eta auzolaneko, elkarbizitzarako, elkartrukerako... egitasmoen bidez.
- Euskararen sustapena, gure hizkuntza ikasteko jende gehiago animatzeko.

Eta azkenik, prozesura gerturatu den pertsona-aniztasunari esker aurreko ataletan azaldu nahi izan dugun moduan, izaera sozial eta kulturalako proposamen ere azaldu dira prozesu osoan zehar:

- Gaixo psikikoen lan-integrazioa
- Arrazoi etnikoengatik edo jatorriarengatik diskriminazioari aurre egitea
- Berdintasunezko jai parekideak izateko beharra
- Solidaritatea lantzea, Nikaraguan kokatutako lankidetzaren proiektu baten bidez.
- Zonaldeko ondare historikoa berreskuratzeko asmoz egiten diren ikerketa, lan... ezberdinak herritarren eskura jartzeko beharra.
- Turismoa sustatu, eskualdeko leku esanguratsu ezberdinak elkar-erlazionatuz.
- Eskualdeko eraikinen erabileraren inguruko hausnarketa egitea, erabilera soziokulturalerako.

Laburtuz, honakoa da egindako lanaren emaitza azaltzen duen taula; herritarren ekimenaz eraikia eta, Aldundiko teknikariek eta bestelako eragile publikoek emandako gomendioekin, diru kantitate bat esleitu zaiena.

Proposamena	Aurrekontua
Auzolan egitasmoak martxan jarri, herri partaidetzaren espresio praktikoa modura.	37.500€
2015ean bi egitasmo martxan jartzeko aurrekontua planteatzea da eta udalen inplikazioa beharrezkoa izango da.	
Ekintzailatza - proiektu bat abiatzea, etorkizunean nekazari-lanetan aritu nahi duten pertsonentzako haztegi gisa.	40.000€
Proposamen hau abiatzeko, lurren beharra dago, eta horretarako lehen urratsa, eskualdean nekazaritza-lanen sustapenerako dauden lur guztien (Aldundiarenak, udalenak eta pribatuenak) azterketa eta balorazioa egiteko pertsona baten kontratazioa behar da.	
Herritarrek proposamen hau garrantzizkotzat jo dute eta lurren azterketa egin ondoren, proposatutako planteamenduetan aurrera egin ahal izateko, beste diru-kantitate bat esleitzea adostu dute.	35.000€
Arazo psikikoak dituzten pertsonen lan-integrazioa sustatzeko programa.	50.000€

(Arraztalo Elkartea)

Arrazoi etnikoengatik diskriminazioari aurre egiteko sare baten sorrera. (SOS Arrazakeria)	45.000€
Jai parekideak jorratzeko berdintasun-teknikarien lan-taldea sortzea. Horretarako, berdintasun-gaietan espezializatutako pertsona bat kontratatatu, udal ezberdinak inplikaturiko dituen eta guztien elkarlana sustatuko duena berdintasuneko jai parekide batzuen alde.	40.000€
Partaidetzan adituan den pertsona baten kontratazioa, herritarren kohesioan eta eskualdeko partaidetzaren dinamizazioan aurrera egiteko.	43.000€
Euskal Herritik kanpo jaiotakoei euskara ikasteko baliabideak ematea.	20.000€
Ondare eta memoria historikoa berreskuratzearen inguruan hausnarketa-prozesu bat egin, eta ikusi nola jarri hori guztia herritarren eskura (eskualdeko eragile guztiekin).	12.000€
Eskualdeko leku interesgarri ezberdinak batuko dituen ibilbide zirkularra diseinatzea/planifikatzea (teknikari, eragile eta interesdun pertsonekin).	12.000€
Etterako energia berriagarriak dituzten aukerez (in)formazioa emango duen gaian espezializatutako pertsona bat kontratatatu.	40.000€
Eta energia berriagarrien inguruko eskualdeko diagnostikoa eta plana egiten.	43.000€
Garapenerako lankidetzak: Nikaraguan emakumeentzako formazio integrala eskainiko duen eskolaren martxan jartzeko proiektua.	8.000€
San Pedroko Proisa eraikina eta eskualdeko gainontzeko azpiegituren inguruko ariketa parte hartzailea egin, eskualde izaera irekiarekin.	35.000€
Aipaturako ariketaren emaitzaren lehen urrats exekutiboak emateko diru-kantitatea handitu.	39.200€

TOLOSALDEA

Tolosaldeko herritarrek 500.000 euro zertan inbertitu proposatzeko fasean, 212 ideia eman zituzten eskura jarritako bide desberdinak erabiliz; on-line, esku-orrien bidez eta bileretan ekarpenak eginez.

Proposamen horietako gehienak ingurumen zein mugikortasun arlokoak ziren baina hona hemen ideia guztien kopuruak Aldundiaren sail hartzaileen arabera sailkatuta:

Ideiaren izaera-eremua	Ideia kopurua
EUSKARA, PARTE HARTZEA, BERDINTASUNA, MIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA, GIZA ESKUBIDEAK, OROIMEN HISTORIKOA	19
KULTURA - GAZTERIA - KIROLA	41
GIZARTE POLITIKA	21
BERRIKUNTZA - LANDA GARAPENA - TURISMOA	24
INGURUMENA	50
MUGIKORTASUNA	57

2014ko ekainaren 10ean egin zen 212 proposamen horietatik lehentasunezkoak markatzera bideratutako eskualdeko lehen batzarra. Batzar horretatik herritarrek 21 proposamen hauek jo zituzten lehentasunezkoetat:

Tolosaldeko herritarrek lehentasunezkoetat jotako proposamenak
Aiztondoko helduen liburutegi amankomunatua. Liburutegi zerbitzu berritzaile bat eskaintzea, Aiztondoko herritarrei eta egungo beharrei erantzungo diona.
Amasa mendiko BTT zentroa
Tolosaldeako eskualdean turismoa sustatzeko kamping publiko bat jartzea. Kampingak kostaldean bakarrik daude eta barrualdera etorri nahi duten turistek ez dute horrelako opziorik. kamping bat ezarri ezker, beste turismo mota bat sustatuko litzateke, horrek ekonomikoki dakarren onurarekin
Erreketan aisialdi guneak sortu bainatzeko (eskualdean)
Errekan bainurako guneak egokitu (Zelai errekan-Ibarra eta Berrobi)
Euskara sustatzeko ekintzak martxan jarri: irakurketa sustatu Ataria indartuz, ez dakitenentzako euskara ikasteko baliabideak jarri, erabilera sustatzeko plan martxan jarri (eskualdean)
Ohiko lanbideen sustapena (arotzak, igeltseroak,...). Langabezian dagoen jendea bildu eta ekintzailetasuna sustatu
Baso eta mendietako bideen egoera zaintzea eta markatzea, diru-laguntzen eta auzolanen bidez (Eskualdean)
Bide berdea sortu, mendi bideak aprobetxatuz (Ibarra-Belauntza-Berrobi-Eldu-Elduain-Berastegi)
Herri bideak ahal den neurrian garbitu eta mantendu, horretarako diru-laguntzak eman, herriko langabetuek lan hauek egin ditzaten (Eskualdean)
Landa eremuan (baserriak) bizi direnentzat garraioa (adb. Bonotaxia?)
Berrobin errepidean hormigoi impresoa jartzea eskatzen dugu, kotxeak polikiago pasa daitezen herriaren erditik; bestela, arriskutsua izan daiteke, umeentzat batez ere

Agaitzeko zentrala berreskuratu (energía berriztagarriak sortzeko eta azterna arkeologikoak berreskuratzeke) Agaitz, Villabona-Aduna
Nekazaritza sustatzea, gazteak nekazaritzara bideratzeko baliabideak jarrita, erabilpenik gabeko lurretan (eskualdean)+
Hondakinen transferentzia planta egin (Tolosan-San Blasen)
Eskualdeko politika parte hartzaileak sustatzeko Interneterako aplikazio berezi bat garatzea. Udal desberdinek gai desberdinen inguruan herritarren iritzia jasotzeko ahalbideratuko duena. Proiektu, egitasmo...desberdinen inguruan proposamenak jasotzeko kanal berriak sortzea izango litzateke helburua, ohiko bileren formatuan oinarriturik gabe. Diseinu edo logo bakarra, parte hartzearekin lotuta udal desberdinek konpartituko luketena baina aldi berean Udal bakoitzak kudeatuko lukeena, proposamenak gardentasunez ikusiz eta Udalak hauen aurrean harturiko erabakien azalpena islatuko lukeena.
Energia hidroelektrikoa sustatu, zentral hidroelektriko zahar eta txikiak berreskuratuta (Eskualdean)
Tolosaldean energia berriztagarriak bultzatu. Azpiegiturak sortu eta dauden zaharrak berreskuratu
Bidania-Goiatz eta Albizturko turismo arloa landu, Loiolako bidea aprobetxatuta
Tolosa-Anoeta bidegorria egin, ondo argiztatuta. Bizikletentzako erreia Tolosa - Anoeta
Bidegorria Tolosa (edo Txarama)-Lizartza-Orexa, diru-laguntzen eta auzolanen bidez

Udako hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiko eragindako sailek proposamen horien guztien bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertu zuten eta irailean azterketa horien berri eman zitzaientzen Talde Eragileko kideei, zein udal ordezkariari, zein proposamen bakoitzaren jabeari, zein eskualdeko bigarren batzarrera gerturatu zirenei.

2014ko irailaren 23an eta urriaren 1ean eskualdeko azken bi batzarrak egin ziren Tolosako Zerkausian, behin bideragarritasun azterketak ezagutu eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 500.000 euro zertan inbertitu erabakitzeke.

Hauek dira 500.000 euro horiek jasoko dituzten proiektuen eta proiektu bakoitzaren aurrekontuen zerrenda:

HAUTATUTAKO PROIEKTU PROPOSAMENAK	Aurrekontua	Departamentua
Aiztondoko liburutegi amankomunatua; liburutegi zerbitzu berritzaile bat eskaintzea, Aiztondoko herritarrei eta egungo beharrei erantzungo diona.	250.000€	02. Kultura
Baso eta mendi bideak zaindu eta markatu, diru-laguntzen eta auzolanaren bidez (eskualdeko GRak).	40.000€	06. Landa garapena
Berrobiko errepidean ibilgailuen abiada moteltzeko egokitzapenak egin: irla berriak, seinaleztapen horizontal eta bertikala, zebra bideak, semaforoak...	90.000€	08. Azpiegiturak
Tolosaldean energia berriztagarriak bultzatu: aukerak aztertu (Tolargi barne) eta ekintza zehatzak inplementatu, udalen eta garapen agentziaren beharrezko parte hartzearekin.	60.000€	07. Ingurumena
Ohiko lanbideak sustatu (arotzak, igeltserotza, nekazaritza...). Langabezia dauden pertsonengan ekintzailetasuna sustatu; baliabideak eskaini (lur-eremuak, lokalak, makinak...) gazteek eta langabetuek ohiko lanbideak gara ditzaten hasierako inbertsiorik egin behar izan gabe.	60.000€	06. Berrikuntza
GUZTIRA	500.000€	

Proposamen zerrenda hori Tolosaldeko Talde Eragileko 4 kidek aurkeztu zizkieten Batzar Nagusietan ordezkartza duten alderdi politiko guztietako ordezkariak, 2014ko urriaren 28an.

UROLA ERDIA

Proposamen bilketa fasean, bide edo kanal desberdinetatik denetara 136 proposamen jaso ziren, jarraian azaltzen den moduan banatuta:

Gaia	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Errezil	Zestoa	Sektoriala	Buzoia	Web orria	Guztira
Mugikortasuna eta bide azpiegiturak	2	2	1		2	1	5 (Azk 2; Azp 2 Zest 1)	7	20
Ingurumena eta lurralde antolaketa	5	1		1		3	6 (Azko 2; Azp 3 Zest 1)	8	24
Berrikuntza, Landa garapena eta Turismoa	1	3	1	3		17	5 (Azk 1; Azp 3 Zest 1)	5	35
Gizarte Politikak		1	1			1	7 (Azko 1; Azp 4)		10

Zest 2)									
Euskara, Partaidetza, Berdintasuna, Migrazioa, Aniztasuna, Giza eskubideak eta oroimen historikoa	1		1				3 (Azko 1; Azp 1 Zes 1)	4	9
Kultura, Gazteria eta Kirolak	1	1	2	2	2		8 (Azko 5; Azp 2 Zest 1)	3	19
Udalaren eskumenekoa	9	6		1			1	2	19

Hasierako fasean identifikatutako 136 proposamen hauetatik abiatuz, lehentasunak zehazteko eskualdeko bilera egin zen, bertan lehentasun handieneko 19 proposamen identifikatu zirelarik. Ondoren, lehenetsi ziren proposamenak eta berauen puntuazioa azaltzen da:

Proposamenaren titulua	Bozka kopura
1. 2014ko aurrekontu parte hartzaileetan adostutakoari jarraipena emanaz, Energia Burujabetza arloan lanean jarraitzeko bidea eman	15
2. Ekintzailatza sustatzeko plataforma sortu	13
3. Zestoan bailara osorako arte eszenikoen eskola sortu	13
4. Gizarte ekonomia eta ekonomia jasangarria bultzatzeko jarduera eta ekimen anitzeko gunea osatu	12
5. Baserri bideen konponketarekin jarraitu	9
6. Eskualde osoko zuhaitzen identifikazioa, inbentarioa eta egoeraren azterketa egin, zuhaitzen ongizatea bermatzearen alde	5
7. Beizamako errota bikoitza birgaitu eta eskualdeko zirkuitu turistikoan sartu	5
8. Gazte dinamizatzailearen zerbitzuarekin jarraitu	5
9. Zestoa eta Zumaia arteko bide berdea osatu	4
10. Eskualdeko ikastetxeek elkarlanean hasi duten proiektuari jarraipena eman, gazteen artean ekintzailatza sustatzeko	4
11. Bertako produktuen salmenta/ erosketa sustatu	4
12. Landa eremuko ustategietara zuzendutako eraldaketa zentro komuna sortu	3
13. Kultura arloko eskaintza zabaltzeko	3
14. Bakarrik edo isolaturik bizi diren helduei zuzendutako aisialdi zerbitzua eskaini	2

15. Oroimen historikoari buruzko proiektuari jarraipena eman	2
16. Eskualde mailako enpresa haztegia sortu	1
17. Urolako Bide berdearen web ofiziala osatu	1
18. Adinekoentzat dauden zerbitzuak baserrietan biz diren pertsonei eta batez ere emakumeei ere gerturatu	1
19. Etorkin helduei egokitutako programak martxan jarri	1

19 proposamen hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariei helarazi zitzaizkien, balorazio tekniko eta ekonomiko egin zezaten. Egindako balorazioak eskualde mailako bileran azaldu ziren, zenbait ekintza batuz (2, 4 eta 10a) eta ondorengo bilera batean hauen artean 500.000 €-ko aurrekontuetan txertatzeko Urola Erdia eskualdeko 4 proposamenak aukeratu ziren:

Proposamenaren titulua	Aurrekontua
Ekintzailatza arloko estrategia martxan jarri	122.000 €
Zestoa eta Zumaia arteko bide berdea osatu	250.000 €
Iazko aurrekontu parte hartzaileetan adostutakoari jarraipena emanaz, Energia Burujabetza arloan lanean jarraitu	65.000 €
Baserri bideen konponketarekin jarraitu	63.000 €

4. ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA

Partaidetzazko aurrekontuen prozesuaren ebaluazioa egiteko, asistentzia teknikoa, eskualdetako aholkularitza-ekipoak eta Aldundiaren arteko berariazko lan-sai obat egin da. Ondoren, barne-ebaluazioaren ondorio nagusienak aurkezten dira.

DENBORAK eta EPEAK

Indar-guneak:

Prozesu guztian zehar, aurreikusitako epeak markatzeko, hasieratik, lan-kronograma bat izatea positiboki baloratu da.

Ekintza-egutegia udalen ekintzetara egokitu dela ere aipatu da. Urola Erdian, aurtengo epe zabalagoak nahiago izateaz gain (aurreko urtean bizi izandako esperientzia pilotuarekin konparatuta), aurten, partaidetzazko udal-aurrekontuaren prozesua ez dela partaidetzazko foru-aurrekontuaren prozesuarekin gainjarri azpimarratu da.

Ahulguneak:

Aurten, lehenengoz bizi izan duten eskualdetan, prozesua egun batetik bestera hasi dela sentitu da, presaz eta, eskualde bakoitzean, dena prestatu zein egokitze astirik gabe. Gainera, ekitaldi zein bilerak deitzerako garaian, malgutasunerako margen gutxi egon da eta aurrerapen gutxirekin.

Aipatu den aspektu negatiboa prozesuaren iraunkortasun luzea izan da, eta gainera, uda erdian egoteak, lan-erritmoaren geldialdia suposatu duela. Baina Urola Erdian zerbait positiboa bezala identifikatu da, aurreko proiektuaren denborak kontuan izanik. Udako geldialdia, justifikatuta egongo litzateke balorazio-txostenak egoki egin izan balira, aurreikusita zegoen moduan.

Urola Erdian gainera, mahai gainean jarri da aurtengo prozesuaren hasiera, aurreko prozesuaren amaierarekin gainezarri dela.

Tolosaldean, foru-aurrekontuen txertatzeko proposamenak hautatzeko batzar bat gehiago eskatu da.

Proposamenak:

Beharrezkoa da, eskualdetan lanean hasi aurretik, inplikaturako udalekin kronograma bat adostea, zonalde bakoitzaren beharrei egokitzeko. Prozesua uda aurretik amaitzea ere proposatu da, urtariletik ekainera garatuz.

METODOLOGIA

Indar-guneak:

Eskualde guztientzako berdina zen sistematizatutako metodologia komuna izateak, prozesua erraztu du, ekintza eta fase ezberdinen garapena nola egin orientatzeko eskema izan delako. Gainera, markatutako urratsak izateak, zonalde ezberdinen arteko konparaketa egin ahal izatea ahalbidetu du.

Bereziki, asistentzia teknikoa, eskualdetako aholkularitza eta Aldundiaren arteko koordinazio-espazioak garrantzitsutzat jo dira.

Landa-lanaren zati bat auzoz auzo landu izana ere, positiboki baloratu da, proposamenak jasotzeko tailerrak eginez.

Ahulguneak:

Eskualde bakoitzaren nortasu, ezaugarri eta idiosinkrasiara egokitzeko, metodologia moldatu behar izan da. Eskualde batzuetan, udalek jarraituko zen metodologiaren berri ez zutela azpimarratu da, nahiz eta prozesua hasi aurretik informazio-saioak egin eta koordinazio-bilerak mantendu aholkularitza eta udalak prozesuan zehar.

Bestalde, kasu batzuetan, proposamen konkretu batengatik mobilizatutako interes-taldeak sortu dira eta eragin handia izan dute proposamenen lehenestea egin eta hautatzeko garaian.

Proposamenak:

Datorren urtera begira proiektuaren jarraitasuna kontuan izanda, lehenengo fasea proposamenen jasotzetik baino, aurten jasotako proposamen-zerrendatik hasi behar dela aipatu da.

Interes-taldeen intzidentzia ekiditeko, Foru Aldundiaren partaidetzazko aurrekontuen prozesuko ekintzen batean parte hartu dutenek bakarri izatea boto-eskubidea proposatu da, erabakiak hartzeko garaian.

Proposamenen lehenesterako irizpideen hierarkizazioa egitea proposatu da, bai eta horietako batzuk komunak eta “sine quanon” txertatuko direnak definitu.

Aldundiko teknikari eta herritarren arteko koordinazio-espazio gehiago sortu, talde sustatzaileek dutenaz gain.

Proposamenen jasotzea egiteko, tailerrak sektoreka (hezkuntza, ingurumena, enplegua...) egitea proposatu da, udalerriak egin beharrean. Beharbada, era horretan, eskualdeko ikuspegia izatea gehiago sustatuko zen eta udal-mailako proposamenak egiteko tendentzia ekidin.

KOMUNIKAZIOA. ZABALKUNDEA ETA IRAGARPENA

Indar-guneak:

Prozesuaren irudi korporatiboa oso ondo baloratu da, herritarrei Aldundiko partaidetzazko aurrekontuen inguruko edozer informazio identifikatzea ahalbidetu duena; halaber, Aldundiak prozesuarentzako web-espazioa ireki izana, prozesuan zehar eragindako informazioa argitaratzea ahalbidetu duena.

Posta bidezko bidalketa ondo funtzionatu duen eskualdetan, diptikoak etxe bakoitzera etxera iritsi izanaren garrantzia azpimarratu dute.

Bidasoaldean, SER katearen bidez egindako zabalkundeak ondo funtzionatu duela adierazi da.

Oarsoaldea, gertuko komunikazioak eragin handia izan du, aurrez aurrekoa, aholkularitza eta herritarren artean.

Ahulguneak:

Eskualde batzuetan, gabeziak izan dira posta bidezko bidalketan, baita prozesuaren zabalkunderako materialen eta euskarrien entregatzean ere, berandu iritsi zena.

Prozesuaren fase ezberdinetan, aholkularitzenganako Aldundiaren komunikazioa berandu ibili dela ere aipatu da.

Bestalde, prozesuan zehar sortutako informazioa Aldundiko webean egon bada ere, informazioa bilatzea ez dela erraza izan eta batzuetan berandu zintzilikatu dela azpimarratu da.

Komunikazio masiko eta orokorretan, presentzia gutxi izan du prozesuak, eta eraginez, ez du bisibilizazio handirik izan.

Erabiltzaileentzako proposamenak online eran egitea zail xamarra izan da; proposamenak jasotzeko diptikoen formatua hobetu daitekeen moduan.

Web-orria dinamikoagoa izan daiteke eta sare sozialetarako estekak jarri ahal dira.

Proposamenak:

Komunikazio Sailaren lanaren planifikazio eraginkorragoa egin behar da eta epeak landa-lana egiten duten aholkularitzekin adostu behar dira.

Web-orrian, informazioa eskualdeka antolatu, egun informazioa “berriak” izeneko atalean sartuta baitago ordenatu gabe.

Garrantzitsua izango litzateke web-orri dinamikoagoa egitea, baita sare sozialak erabiltzea ere: Facebook, Twitter..., herritarrentzat informazioa erakargarriagoa egiteko asmoz.

Prozesuaren iragarpena egiteko espazio publikoak bilatu.

Proposamenak jasotzeko diptikoen diseinua egokitu, partaidetzazko aurrekontuetan sartu daitezkeen eta sartu ezin direnen adibideak erakutsiz, herritarrek beraien proposamenak idazteko leku bakarra eskainiz (gai zein sail ezberdinetan banatu gabe).

Tailerretan parte hartu duten pertsonen gertuko komunikazioaren beharra azpimarratu dute, jendea parte hartzera animatzeko.

Ikasitakoak:

Proiektuaren zabalkundea egiteko era egokiena gertuko komunikazioa izan da. Oarsoaldean, hori elkarreetara, jai-batzordeetara, parkeetara, lokutorioetara... gerturatuz egin da, eta horren seinale, diptikoetan zein internet bidez jasotako proposamen kantitate handia izan da.

KOORDINAZIOA:

Indar-guneak:

Talde sustatzaileekin egin den lana eta koordinazioa ezinbestekoa izan da, eta gainera, erlazio dinamiko, eraikitzaile eta produktiboa izan da.

Proiektuaren zuzendaritzarekin mantendutako komunikazio eta kontaktua egokia izan da eta koordinazioa ahalbidetu du.

Asistentzia teknikoa, eskualdetako aholkularitza-ekipo eta Aldundiarekin egindako aurredefinitutako koordinazio-bilerak izatea positiboki baloratu da.

Ahulguneak:

Uda ondoren, eta proposamenak lantzeko garaian Aldundiko sail ezberdinekin koordinatzeko momentuan, administrazio horren bidez egin beharreko kudeaketak oso motelak izan dira.

Bestalde, Aldundiko teknikarien eta inplikaturako udalen arteko koordinazio falta detektatu da.

Udal askoren inplikazio falta ere aipatu da, koordinazio-bileretara joan ez direnak eta, kasu hoberenean, bilerak eta tailerrak egiteko espazioak utzi eta proiektuaren inguruko kartelak jarri dituztenak.

Proposamenak:

Ezinbestekotzat jotzen da udalen eta garapen agentzien inplikazioa. Horregatik, eragile hauekin elkarlanerako eta konpromisorako hitzarmen bat sinatzea proposatzen da. Hitzarmen hauen bidez, prozesuaren diseinuan, koordinazioan eta zabalkundean inplikatzeari zehaztu daiteke.

Herritarren zenbait tailerretan eta prozesuko fase guztietan, Aldundiaren (teknikari zein politikari) presentzia bermatu behar da ere. Era honetan, herritarrekin ospatuko azken faseko tailerren aurretik, udalen eta Aldundiaren arteko koordinazio-puntua ezarri behar da.

Azkenik, udalen partaidetzarako espazioak ere aurreikusi behar dira, hauen eta Aldundiaren arteko topaketa ere ahalbidetuko dutenak.

Ikasitakoak:

Herritarrek botatzen dituzten ideien pertzepzio errealagoa izan eta prozesuaren garapena errazteko, inplikaturako eragile publiko guztien partaidetza beharrezkoa da. Proiektuaren garapen egokia bermatzeko ezinbestekoa da udalen elkarlana eta inplikazio instituzionala.

INFORMAZIOA

Indar-guneak:

Prozesua koordinatu, metodologia zein partaidetzarako tresnak proposatu eta fase bakoitzeko urratsak jartzen dituen asistentzia teknikoa positiboki baloratzen da, eskualde bakoitzeko aholkularitza-ekipoen lana errazten baitu.

Ahulguneak:

Prozesuko momentu batzuetan, eskualdetako aholkularitzei informazio eman zezaten eskatu da, denbora gutxi emanez: prozesuaren hasieran, azken-ebaluazio tailerrean.... Beste batzuetan, Aldunditik, eta aholkularitzei baita ere, informazio bera eskatu zaie hainbat aldiz: tailerretako partaideen zenbakia, proposamen-kantitatea...

Bestalde, asistentzia teknikoak erraztutako word-eko dokumentu batzuk ez dira erabilgarriak suertatu, informazio asko maneiatu behar izan diren momentuetan, excel-formatua erabiltzea nahiago izanik.

Proposamenak:

Ekipo ezberdin artean dokumentuak elkartrukatzeko intraneteko tresna bat oso erabilgarria izango litzateke.

Prozesuan egiten den zabalkundean, herritarren proposamenek izan beharreko eskualdeko ikuspegia azaldu. Proposamenak jasotzeko lehen tailerretan, Aldundiaren konpetentzien inguruko informazioa eta azalpenak indartu behar dira.

Sare sozialak (facebook, Twitter...) erabili herritarrei informazioa emateko.

Aldundiaren funtzionamendu eta konpetentzien inguruko informazioa emateko, web-orria erabili.

HERRITARREN PARTAIDETZA

Indar-guneak:

Prozesuak herritarren partaidetzarako egokiak diren espazio zein kanalak proposatzen ditu, partaidetza presentziala eta online bidezkoa kontuan hartuz.

Administrazioa eta bere aurrekontuaren irekierak, herritarrak proposamenak eginez kudeaketa publikoan parte har dezaketela demostratu dute. Gainera, proposamen

asko jaso dira, beraz herritarren intereseko gaia dela agerian geratu da. Herritarrek postiboki baloratu dute, gai publikoen inguruan erabakiak hartzeko garaian, beraiek kontuan izatea.

Ahulguneak:

Prozesuari instituzioen partaidetzarako espazioak falta zaizkio, baita administrazioa eta herritarren arteko lan-espazioan ere.

Bestalde, herritarren partaidetzarako ahalbidetutako espazio batzuetan, udal-ordezkarri batzuk izandako presentzia eta jarrera kritikatu izan da partaide batzuentzat.

Aldundiko partaidetzazko aurrekontuen prozesua udalerri batzuetako beste partaidetzazko prozesuak martxan zeudenean egin da.

Prozesu honetan, herritarrek udalek inplikazioa faltan bota dute.

Proposamenak:

Web-orria lan-esparru gisa erabili. Bozkatzea egiteko online-espazioa erabili daitekeen aztertu.

Herritarren proposamenak kalean ere jaso, ez bakarrik antolatutako tailerretan (kolektiboei bisitak, kaleko tailerrak, informazio-mahaiak, merkatuak, hezkuntza-zentroak...).

Herritarren partaidetza bermatu ere hautatutako proposamenen exekuzioa eta segimendua egiteko.

Udal-administrazioako politikari zein ordezkariekin berriazko tailerrak egiteko aukerak aztertu.

Pertsona-perfil guztien partaidetza errazteko, ordutegi eta ekintzak erantzunkideak izan daitezen saiatu. Tailer batzuetan, herritarren partaidetza errazteko hartzaindegiz-zerbitzua jartzea proposatu dute, adibidez.

UDALEN eta ALDUNDIZ KANPOKO ORGANISMOEN INPLIKAZIOA

Indar-guneak:

Udal batzuk asko inplikatu dira eta prozesuaren garapena erraztu dute.

Oarsoaldean, Garapen Agentziaren partaidetza ezinbestekoa izan da, duen eskualdeko izaeragatik eta egin dituen ekarpen teknikoengatik.

Ahulguneak:

Udal bakoitzak bere funtzionatzeko era eta egutegia dauka, hori dela eta, prozesu hau ez da beraientzako lehentasunekoa izan. Eta horrek udal-administrazioa prozesuko komunikazio eta zabalkundean inplikatura ez egotea eragin du.

Proposamena:

Landa-eremuarekin hasi aurretik, prozesua prestatzeko, eskualde bakoitzeko udal eta garapen agentziarekin koordinazio-lanak egin behar dira.

ALDUNDIKO TEKNIKARIAK

Indar-guneak:

Sailetatik, herritarren proposamenak definitu eta kanalizatzeko informazio asko daukate.

Talde sustatzaileek Aldundiko teknikariek izan zuten bilera oso ondo baloratua izan zen.

Ahulguneak:

Sail bakoitzak planifikazio bat eta helburu zehatz batzuk dauzkate. Hori dela eta, prozesu hau gainkarga bat izan da.

Txosten teknikoak ez ziren garaiz egin, nahiz eta denbora asko izan, uda tarteko. Gainera, txosten asko oso laburrak ziren eta ez ziren eskatutakoari egokitu.

Eskualdetako aholkularitza-ekipoek Aldundiko sail bakoitzarekin izandako azken bilerak ez zeuden programatuta, asko izan dira eta aurrerapen gutxirekin antolatu dira. Honek espero ez zen esfortzua suposatu du, nahiz eta beharrezkoak izan dira herritarren proposamenen garapenerako ikuspegi egokia bermatzeko.

Aholkularitzak Aldundiko pertsonalaren arteko bilerak, Aldundiko denboren arabera antolatuak izan dira, aholkularitzak horietara moldatzea derrigortuz.

Proposamenak:

Teknikari eta herritarren arteko lanerako espazio gehiago definitu, ez bakarrik talde sustatzaileekin.

Paperezko txosten teknikoak teknikariekin egin beharreko bilerengatik ordezkatu proposamenen bideragarritasuna neurtu eta konkretzioa landu; paperean entregatutako informazioa baino baliagarriagoa, zabalagoa eta argia izan baita bileretan emandakoa.

Herritarren proposamenetan inplikaturako sail bakoitzarekin bilera bat egin daiteke, proposamenen balorazio teknikoa egiteko.

Aldundiko sail ezberdinetako zuzendareekin konpromisoa hartu teknikariek egindako lana gainbegiratzeko, baita txosten teknikoak garaiz eginak izango direla bermatzeko ere.

TALDE SUSTATZAILEA

Indar-guneak:

Orokorrean, talde sustatzaileetan parte hartu duten pertsonak elkarlanerako gogoekin egon dira, prozesuarekin ulerkorrak izan dira eta asko inplikatu dira.

Ahulguneak:

Talde sustatzailearen osaera anitza izateko irizpideak kontuan izan baziren ere (adina, generoa, udalerria...), prozesuan hautatutako proiektuen sustatzaileak zeuden taldean bereziki.

Urola Erdia izan ezik, gainontzeko eskualdetan, talde sustatzaileetan parte hartu duten pertsonen sententzia izan da prozesua asko luzatu dela, eta horrek etengabeko asistentzia mantentzea oztopatu du.

Proposamenak:

Teknikarien eta herritarren arteko elkarlanerako espazio gehiago behar dira.

HERRITARREN PROPOSAMENEN EDUKIA

Indar-guneak:

Herritarren proposamenek eskualdeko errealitatea identifikatzen lagundu du.

Ahulguneak:

Jaso diren proposamen askori eskualdeko ikuspegia txertatzea falta izan zaie, herritarrek eskualdeko proiektuak zehazteko zailtasun handiak izan baitute. Dena dela, eskualde bakoitzean lehenetsitako 20 proposamenek eta azkenik hautatutakoek eskualdeko zein udalerriz gaindiko ikuspegia txertatuta daukate.

Ikasitakoak:

Herritarren proposamenak landu eta eskualdeko proiektuak bilakatzeko, herritar eta teknikarien arteko espazioak ahalbidetu behar dira.

BATZAR NAGUSIAK

Indar-guneak:

Talde sustatzaileak (Oarsoaldekoa izan ezik, joan ez zirenak, Batzar Nagusiak projektutik oso urrun sentitzen baitzituzten) positiboki baloratu dute Batzar Nagusietako ordezkari politikoei eskualde bakoitzean hautatutako proposamenen azalpenak ematera joatea, horiek baitira foru-aurrekontua onartzeko arduradunak.

Ahulguneak:

Batzar Nagusietako partaideek talde sustatzaileekin egindako bileran egindako proposamenen inguruko balorazioak egokiak izan ez zirela baloratzen da.

Proposamenak:

Batzar Nagusietako kideekin topagune gehiago definitu behardira, prozesua gertuagotik bizi eta herritarren proposamenen jatorria sakonagotik ezagutzeko.

HERRITARREN PROPOSAMENEN ETORKIZUNeko EXEKUZIOA

Indar-guneak:

Proposamenak exekutatzea herritarren partaidetzaren bidez identifikatutako beharren bati erantzuna ematea suposatuko du.

Ahulguneak:

Arazoa suertatzen da urte bete baino gehiagoko inbertsioa nahiz exekuzioa eskatzen duten proposamenekin. Proposamen hauei jarraitasuna ematen ez bazaie, frustrazioa sortzen da horiek lehentasunezko proposamen gisa hautatu dituzten pertsonetan.

Proposamenak:

Ondorengo esperientziatarako, proposamenen etorkizuneko exekuzioa diseinatzeko, Aldundiko teknikari eta aholkularitzen arteko koordinazio-espazioa kontuan izan behar da kronograman eta aholkularitzen aurrekontuetan. Baina lan hori prozesuan zehar bermatzea litzateke egokiena (ez bukaeran) eta herritarrekin elkarlanean egitea.

Urte bete baino gehiagoko exekuzioa eskatzen duten proposamenei dagokienez, horiek ere kontuan izan behar direla uste da, eta horretarako, 4 urtetara arteko exekuzioa duten proiektu estrategikoentzako aurrekontuen zati bat eskaintzea proposatzen da.

Ikasitakoak:

Aldundiaren erritmoak oso motelak dira orokorrean.

GENERO – IKUSPEGIA

Indar-guneak:

Talde sustatzaileen osaeratan, genero-ikuspegiaren arabera, parekide mantendu dira.

Lehenetsitako proposamenen eta azkenik hautatutako proposamenen artean, genero-berdintasuna espresuki lantzea eskatzen duten proposamenak ageri dira.

Ahulguneak:

Genero-ikuspegia bermatzeko estrategia zehatz baten falta sumatu da.

Prozesuaren barne balorazioan, genero-ikuspegia bereziki aztertzeke atal bat falta izan da.

Proposamenak:

Prozesuaren fase guztietan txertatu beharko litzateke genero-ikuspegia, diseinu eta landa-lanetik prozesuaren ebaluazioraino.

Hurrengo bi batzarretan, berriz, papelografo batean jaso genituen iritziak, ondorengo lau alderdien arabera: parte-hartzea, asistentzia, emaitza, giroa eta Aldundiko teknikariek egindako lana. Ondoko matrize honetan jaso genituen emaitzak:

BALORAZIOA	🙄	😞	😊	😄
PARTI-HARTZEA PARTICIPACIÓN			X X X X X X	
ASISTENGA ASISTENCIA	X X X X X X	X		
EMAITZA RESULTADO		X X X X X X	X	
GIROA AMBIENTE		X	X X X X X X	
TEKNIKARIEK BALORAZIOA	X	X X X X	X X X X	

Azkeneko bileran, berriz, prozesu osoa hitz batekin baloratzeko eskatu genien, eta ondoko hauek atera ziren:

novedoso **hasiera**
 experiencia positiva
 aprendizaje **continuación**
 beharrezkoa **egokia**
 ilusionantea **interesante**
 aldaketa **multiplicador**
 mayor participación

TALDE SUSTATZAILEAREN BALORAZIOA

Talde sustatzailearekin bilera bat antolatu zen, prozesu osoaren balorazioa egiteko, eta aurrera begira hobetu beharrekoak jasotzeko. Honako hauek izan ziren ateratako ondorio nagusiak:

	NABARMENTZEKOAK (POSITIBOA)	HOBETZEKOAK (NEGATIBOA)	PROPOSAMENAK
Epeak	→ Bilera kopuru egokia.	→ Prozesua iragarri zenetik, hasi arte denbora asko joan zen. Horrek eragina izan du. → Udako etena ez da egokia. Prozesuak udarako bukatua egotea komeni litzateke. Luzeegia da prozesua, eta epe motzago batean kontzentratzea egokiagoa ikusten da, ahal bada, 3 edo gehienez ere, 4 hilabetetan. → Egutegia bere osotasunean prozesuaren hasieran aurkeztea komeni da.	→ Aurrez, nahi den herri-ereduaz gogoeta egin ahal izatea
Aurretiko informazioa		→ Bileretan informazio nahikoa, baina aurrez jasotakoa ez da nahikoa izan. → Buzoneoa desastre hutsa izan da. → Konpetentzien inguruko informaziorik ez dago. Bileretan emandakoa ez da nahikoa.	→ Webguneak konpetentzien gaineko informazioa jaso beharko luke. → Aldundiak eskualderako dituen proiektu nagusien gaineko informazioa eman. → Aldundiaren aurrekontua nola egiten den, atal nagusiak zein diren aurkeztu.
Prozesuan zehar, informazioa	→ Teknikariek proiektuak zergatik baztertu dituzten, edo ikusitako zailtasunak egoki azaldu dira. → Malgutasun handiz jokatu da, eta txostenekin desadostasunen bat aurkeztu denean, kontuan hartu da. → Entzunak sentitu gara. → Proposamen guztiak landu dira, eta herritarrekin kontrastea egin da.	→ Komunikazioak ez du behar bezala funtzionatu. Deialdiak, aktak... gehiago zaindu. Facebooka erabili behar da. → Webgune dinamikoa behar da. Ongi posizionatu behar da, oso zaila egiten da topatzea. → Kartelak beharrezkoak dira, ez soilik hasieran, prozesu osoan zehar, data guztiak jasoko dituztenak. → Irudia gehiago zaindu, karteletan, esku-orrietan... erakargarriagoa egin. → Tokiko komunikabideak, bereziki, zaindu, eta Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa eta tokiko telebistetako edizio lokalak mimatu eta publizitatea txertatu.	→ Bileren aurretik informazio gehiago bidali (jasotako proposamenak, eskualdeko batzordeetan landutakoak, teknikarien txostenen ondorioak...)

Publizitatea eta zabalkundea		→ Buzoietako banaketa txarra izan da → Diseinua ez da egokia → Egin den publizitatea ez da eraginkorra. Ser irrati-katekoa izan da ikusi den bakarra, eta ez gehiegi. → Klean ez du presentziarik izan → Prozesuaren hasieran pixka bat egin da, gero ezer ez.	
------------------------------	--	--	--

	NABARMENTZEKOAK (POSITIBOA)	HOBETZEKOAK (NEGATIBOA)	PROPOSAMENAK
Partaidetzarako bide eta mekanismoak eta proposamenen jasotzea	→ Oso egokia izan da internet bidez ez bozkatu ahal izatea, eta soilik ekarpenak egiteko irekitzea. Eztabaida sustatu du horrek. Telebotoa ez da bide egokia. → Eztabaidarako espazioak sortu dira. → . fasea auzoetan egin izana oso ongi egon da, jendea erakartzeko oso interesgarria da. Aberatsa. → Konfiantzazko eremuak landu dira, giroa zaindu egin da. → Teknikoki ongi planteatua. → Proiektuak egokitzeko eta berriz bideratzeko malgutasuna egon da.	→ Inbertsioetako aurrekontuak ezin aldatu ahal izatea ez da egoki ikusten (bideragarriatsu nari dagokionean) → Teknikarien presentzia txikiegia da. → Prozesuak ez du bermatzen aukeratutako proposamenak partaidetzaren bidez garatuko direnik, eta herritarren nahiei erantzungo dieten edo teknikariek nahi bezala egokituko dituzten.	→ Teknikariak eskualdeko batzarrera etortzea aberasgarria izan daiteke. → Herritarrek proposamenen garapenean eta diseinuan ere parte hartu ahal izatea. → Proiektuen segimendurako Talde Sustatzaileak lanean jarraitzea, behatoki moduko bat sortzea.

	NABARMENTZEKOAK (POSITIBOA)	HOBETZEKOAK (NEGATIBOA)	PROPOSAMENAK
Administrazio ezberdinen inplikazio instituzionala	→ Oso interesgarria da benetako partaidetza sustatzea, eta bereziki, aurrekontuen atalean.	→ Lotsagarria da Irungo Udalaren jarrera. Onartezina da instituzioen arteko gatazka, herritarrek pairatzen dugulako. Dirua guztion → poltsikotik ateratzen da, eta herritarrek ez dugu zertan ordaindu behar euren arteko desadostasunak. Elkar ulertzer a derrigortuak daude. → Udalak inplikatu egin behar dira zabalkundean, publizitatean... → Herrietako eta eskualdeko partaidetza aurrekontuen prozesuak koordinatu egin behar dira, sinergiak batu, eta baterako balio duenak, besterako ere balio dezala. Ez du zentzurik proposamenak bi aldiz egin behar izatea.	
Talde Eragilearen funtzioak eta funtzionamendua	→ Oso egokia eta beharrezkoa → Talde oso anitza → Giro oso ona		→ Posta-talde bat osatzea, informazioa eta iritziak elkartrukatzeko.
Proiektuaren erabilgarritasuna	→ Herritarrak aberasten ditu, herritartasuna lantzen da. → Ikaste-prozesu interesgarria → Taldearen aniztasuna → Aberasgarria → Eragile askoren arteko harremana, besteekin parte hartu ahal izatea	→ Informazioa hobetu, partaideei zein parte hartu ez dutenei. → Aukeratu ditugun proiektuak ez dira hautemangarriak → Prozesuaren segimendua egin → Diru gutxiegi bideratzen da, eta nahiz eta prozesua interesgarria izan, frustraziorik ez eragiteko, diru gehiago bideratu beharko litzateke eskualde bakoitzerako.	→ Partaidetza prozesuak bultzatzen jarraitzea → Irizpideen artean sartu proiektuen kopuru bat hautemangarriak izatea? → Eskualdeko irizpidea eta ikuspegia gehiago landu
Ikasitakoak	→ Eztabaidatzen ikasi → Ikaste-prozesua → Parte-hartzen ikasi → Euskara eta gaztelaniaren arteko erabilera oso egokia.		
Bestelakoak		→ Gazte jendeak ez du parte hartu	→ Ikastetxeetan saio presentzialak egin, gazteek parte har dezaten.

UDALEKIN BALORAZIOA

Bi udalekin batera ez da balorazio saiorik egin ahal izan. Irungo Udalarekin urtarilean egingo da balorazio-saioa eta hurrengo urteko planteamenduari begirako bilera.

Hondarribiko Udalarekin, berriz, deboluzioa egin da, prozesuaren berri eman da, proposamenak aurkeztu, eta prozesu osoaren balorazioa egin ez bada ere, bereziki nabarmendu dira honako alderdi hauek:

Epeak: Ez da garairik onena, uda partean egin direlako saio gehienak (maiatza bukaeran, ekainean eta irailean), eta Irun eta Hondarribian jaien hurbiltasuna erabatekoa da. Negu alderago egitea komeni litzateke.

Informazioa: Herritarrei begira, aurretikoa zein prozesuan zehar egindakoa ez da nahikoa. Herritarrak, oro har, gutxi enteratu dira, ez da proiektua ikusaraztea lortu, eta ez du oihartzunik izan. Kartel gutxi jarri da, postontziak ez dira behar bezainbeste ikusi, eta etxeetara bidalitako publizitatea, Hondarribian, berandu iritsi da (hainbat etxetara ez da iritsi, eta beste hainbaten Hondarribiko bileraren ondotik jaso dute). Ez da argi geratu eskualdeko bi bileren eskualde izaera. Udalak prozesuan zehar jasotako informazioa nahikotzat hartzen da.

Publizitatea eta zabalkundea: Ser irrati-kateak eta Diario Vascoko tokiko edizioak duten oihartzuna ikusita, ahalegina bi horietan egin behar da, bestelakoak ahaztu gabe.

OARSOALDEA

Prozesuaren balorazioa etengabea izan da, sortutako lan-egituren bitartez bermatu baita: Talde Sustatzailean herritarrekin; Observatorio CIMASekin izandako koordinazio bileretan, Aldundia eta aholkularitzekin; eta udalekin egindako segimendu bileretan.

Dena dela, prozesuaren azken fasean, prozesu osoaren balorazioa egin da eragile sozial ezberdinekin: herritarrekin, Talde Sustatzailearekin eta udal zein Garapen Agentziarekin.

HERRITARREN BALORAZIOA

Orokorrean, herritarrek berez herritarrak ez daudela parte-hartzera ohituta azpimarratu dute: gainontzeko partaideei elkarbanatzea, enpatizatzea, entzutea... Horrela bada, proposamen konkretu batekin prozesura gerturatu ziren herritarrak izan dira neurri handiagoan parte hartu dutenak eta beraien proiektua defendatzeko asmoa agertu dutenak.

Gainera, hasieran jasotako proposamenek udal-kutsu fuertea izan dute. Hau da, herritarrentzat oso zaila da eskualde-mailarako ideiak proposatzea, egunerokotasuna udalerrri batean zentratuta baitago, eskualdeko ikuspuntua galdaraziz.

Aurretik aipatutako guztiaren emaitza gisa azkenean adostutako proposamen-zerrenda ikus daiteke, aurrekontu txikiko proposamen txiki askorekin. Herritarrek azken hori etorkizunean hobetu beharreko bezala azpimarratu zuten, eta proposamen gisa, planteamendu estrategikoa lantzetik hastea bota zuten, herritarrei proposamen konkretuak eskatu beharrean.

Orokorrean, positiboki baloratu da prozesua. Oso ondo baloratu da kudeaketa publikoa egiteko modu berriak irekitzea. Baina oraindik agerikoa da jendearen eszeptizismo-puntua, era honetako prozesuetan sinesteko, beharrezkoa baita beraiek esandakoa martxan jartzea eta aintzat hartzea.

Datozen urteetarako, hainbat aholku eman dira, ondorengo lerroetan jasotzen direnak:

- Web-orria lan-tresna gisa erabiltzea, ez bakarrik informazio konkretu bat erakusteko.
- Herritarrekin egin beharreko bilera eta tailerrak prestatzerakoan, bileraren aurretik informazio gehiago eman.
- Familia-kontziliazioa erraztu, haurtzaindegia-zerbitzua jarritz.

TALDE SUSTATZAILEAREN BALORAZIOA

Talde Sustatzailea, fasetik fasera, prozesua era gertuenetik bizi izan duten herritarrek osatu dute. Hori dela eta, beraiekin berariazko balorazioa egin nahi izan dugu, azken bileraren zati handiena horri eskainiz.

Talde Sustatzailearen iritziz, prozesua oso luzea izan da; fasetik fasera denbora asko pasa da, jendea aldentzea ekarri duena. Batez ere, uda garaian, bi eskualdeko bileren artean 4ia 4 hilabete egon zirenean. Baina, aldi berean, hasieratik prozesua oso ondo antolatuta zegoela pentsatzen dute (helburuak eta abarrak) eta bilera-kopuru egokia izan duela azpimarratu dute.

Eskainitako informazioari dagokionez, Talde Sustatzaileko partaideek azpimarratu nahi izan dute bileretan lan asko egin dela, eta asko landuko lukeela bileraren aurretik informazioa bidali izana. Adibidez, web-orria aipatu zuten lan-tresna aktibo gisa; dinamismo gehiago emanda eta informazio gehiago zintzilikatuta, bileretan gehiago aurreratuko litzateke eta eraginkorragoak izango lirateke.

Talde Sustatzaileko kideen hitzetan, eskualdean ez da prozesua ezagutzera eman. Puntualki, komunikabideren batean ikusi izan dute, baina zabalkunde handiago behar izan dela pentsatzen dute. Eta udalak nahikoa inplikatu ez direla sentitzen dute, zeren, era horretan, udalen inplikazio handiagoarekin, prozesuak oihartzun handiago eduki ahal zuen: udalerrietako elkarteetan, talde sozialetan...

Erakunde publikoen partaidetzari dagokionez, 3 alderdi azpimarratu dituzte:

- Prozesuko momentu ezberdinetan, udalen presentzia eta partaidetza egon da. Momentu batzuetan, partaidetza hori oso egokia izanda, eskualdeko proiektu bat izanik, udalerrri bakoitzeko errealitatea ezagutzea ezinbestekoa baita, zer egiten den ikusi eta zer falta den definitzeko. Baina, beste momentu batzuetan, herritarren partaidetza kikildu du. Beraz, udalerrietako ordezkari politikoen partaidetza momentuak eta erak hobetu neurtu beharko lirateke, herritarren lan-espazioetan.
- Gainera, udalen inplikazioa handitu behar da prozesuan, era horretan, udalerrietako eragile sozial ezberdinek prozesuaren berri izatea bermatuko zen, eta ziurrenik, jende gehiagok parte hartuko luke.
- Zentzu horretan, Aldundiak (pertsonal politiko eta teknikoak) izan beharreko partaidetza ere aipatu zen, gertuagokoa eta inplikatuagoa izan behar duela azpimarratuz. Finean, herritarrek identifikatutako eskualderako hobekuntzarako ideia sentsazio edo beharra da, baina oso zaila gertatzen da hori proiektu konkretu batean definitzea, aharik eta gehiago, proiektu hori Aldundiko

departamentuen lan-ildoekin bateragarria izan behar badu. Ondorioz, herritar eta pertsonal tekniko zein politikoaren arteko lan-gune gehiago txertatzeak prozesua arinago eta eraginkorrago aurrera egiteko aukera emango luke, eta administrazioko pertsonal teknikoaren eta herritarren arteko gertutasuna lantzea ahalbidetuko luke.

Erabilitako metodologia egokia izan da momentu bakoitzean lortu behar ziren helburuak lortzeko. Baina Talde Sustatzaileko kideen ustez, beraiek herritar guztiei zabaldutako informazioa jaso dute batzuetan, prozesua benetan jarraitu duten bakarrak eurak izan direla sentitzen baitute. Baina etorkizun hurbilera begira aldira, Talde Sustatzaileko kideen hitzetan, proposamenen garapenean, beraiekin kontatu behar da segimendua egiteko; baita datozen prozesuen diseinuan parte hartzeko ere, jadanik nolabaiteko esperientzia baitute.

UDALEN ETA GARAPEN AGENTZIAREN BALORAZIOA

Udalen aldetik, prozesua oso zurruna izan da. Hasieratik egon da egitura definituta, baina hori ez zen aldeztatik udalekin kontrastatu, eta udal askotan, horrek beraien inplikazioa baldintzatu du. Azken finean, horrelako prozesu batek kontuan izan behar ditu udalerri bakoitzaren denborak eta horiek guztiak egoki antolatu/konpartitu, udalen inplikazioa eta parte-hartzea kalitatezkoa izan dadin.

Zonaldeko bakoitzean, lidergoa eta koordinazioa eramaten aholkularitza bat egoteak prozesuaren jarraitasuna bermatu du eta, zailtasun gehiago edo gutxiagorekin, eskualdeko agente guztietara iristea ahalbidetu du, Garapen Agentzia, udalak eta herritarrek sarean. Beraz, Farapi aholkularitzaren lana positiboki baloratua izan da. Ikuspuntu honetatik, udal-ordezkariekin egindako bilerak zehatzak, praktikoak, eraginkorrak eta motzak izatea eskertu da.

Ardura partaidetza-zenbakiak aztertzen hasi garenean iritsi da; nahiz eta udaletatik ere onartu den jendea parte-hartzera animatzeko arazo handiak izaten dituztela. Baina datu horien erantzuleetako bat komunikazioa izan daitekeela komentatu da, mugatua izan dela azpimarratu dutena. Dena dela, zalantzan jarri dira egun edozein prozesuko sustatzaileok zabalkunderako erabili ohi ditugun bideak, eta mahai gaineratu da herritarrengana hurbiltzeko eren inguruan hausnartzeko beharra.

Prozesuan zehar, udalek eginkizun zehatz bat izan dute eta Garapen Agentziak beste bat. Baina bien arteko elkarlana ezinbestekoa da, udalak Agentziako organo erabakitzailea izanik, bien arteko elkarriketa zuzena behar da herritarrengandik sortzen diren proposamenen bideragarritasuna egokiago bideratu ahal izateko. Era

horretan ere, proposamenen planeamenduaren egokitasuna eta prozesuaren eraginkortasuna bermatzeko, administrazio lokalen eta foralaren arteko lan-esparruak ere eragin beharko lirateke.


Azken finean, partaidetza sustatzea ez dela erraza eta herritarrek parte-hartzera ohituta ez daudela ikusten da entitate desberdinetatik. Baina partaidetza kudeaketa publikoan ezinbestekoa dela uste dute, eta elkarlanerako espazioen irekiera sustatu behar direla, herritarren pertzepzioa aldatzeko eta honelako prozesu gehiago ahalbidetzeko, aberasgarriak, anitzak, eraikitzaileak... baitira.

Azkenik, eta eragile ezberdinen hitzetan, proiektuak urte beten egingarriak izan beharrek, eskualdeko hobekuntzan eragiteko gaitasuna asko mugatzen du, eta denbora/proiektzioa zabaltzeko aukera aztertzea gonbidatzen dute Foru Aldundia.

TOLOSALDEA

HERRITARREN BALORAZIOA

Prozesua aurkezteko eta ideiak sortzeko tailerretan, oro har, herritarrek balorazio positiboa egin dute tailerretan erabilitako metodologiaren, bizitako giroaren, lortutako emaitzaren eta norbere ekarpenaren inguruan.



Herritarren proposamenak lehenesteko fasean, baina, balorazio kontrajarriak jaso ziren eskualdeko azken batzarraren ondoren. Hona hemen herritarrek ezbaian jarritako hainbat alderdiren inguruan jasotako iritzien zenbait zantzu:

Balioetsitako arloa	Jasotako iritzien zertzeladak (1etik 10era)
Aurrekontu parte hartzaileen inguruko interesa	-%78k oso ongi edo bikain baloratu dute (7tik 10era)
Espektatiben betetze-maila	-%47k oso ongi edo bikain baloratu dute -%26k gaizki edo oso gaizki baloratu dute (1etik 4ra)
Aurkezpenen argitasuna	-%83k ontzat edo oso ontzat eman du (5etik 10era)
Taldearekin elkar eragiteko gaitasuna	-%75ek ontzat edo oso ontzat eman du (5etik 10era)
Ideiak eta ekarpenak egituratzeko gaitasuna	-%68k ontzat edo oso ontzat eman du (5etik 10era)
Proiektuaren inguruan jasotako informazioa (deialdiak, berriak, esku-orriak, kartelak,...)	-%73k ontzat edo oso ontzat eman du (5etik 10era)
Ekarpenak egiteko erraztasuna (bilerak, postontziak, webgunea,...)	-%85ek ontzat edo oso ontzat eman du (5etik 10era)
Lehenetsitako proiektuen inguruan jasotako balorazio teknikoak	-%25ek oso ongi/bikain baloratu dute (7tik 10era) -%42k gaizki edo oso gaizki baloratu dute (1etik 4ra)
OROKORRA	-%76k prozesua ontzat edo oso ontzat eman du (5etik 10era)

TALDE SUSTATZAILEAREN BALORAZIOA

Partaidetzazko prozesua gainbegiratzan eta leheneste-irizpideak markatzen ibili den Talde Eragilean ere egin zen prozesuaren balorazioa eta hauek izan ziren datorren urtera begira hobetzeko identifikatu zituzten puntu nabarmenenak:

- Udalek eta Garapen Agentziak beren lan ildoen berri herritarrei ematea indartu behar da ideia-sorkuntza faseari begira, baita ideiak lehenesteko orduan ere.
- Bozkatzeko aukera soilik prozesu hasieran izena emandakoei ematea aztertu behar da (interes-taldearen eragina saihesteko).
- Aldundiaren txosten teknikoak hobeto landu beharra dago. Aldundiak udalekiko harremanean zehaztapen lanak egin beharko lituzke (ideiak proiektu bihurtu).
- Eskualde osorako ikuspegiarekin lotutako irizpideen aplikazioa indartu eta mugak ezarri behar dira.
- Interes-taldeak edo lobbyak saihesten lagundu behar du prozesuko metodologiak.
- Proposamenak aurkezteko denbora gehiago eman behar zaie herritarrei.
- Argitu egin behar da udal ordezkari politikoek zenbateraino parte har dezaketen.
- Eskualde ikuspegia ez dago errotuta eta erabaki behar da ea azpieskualdeka funtzionatu behar den gehiago edo irizpideak gogortuz soilik eskualde ikuspegia duten proposamenei ireki behar zaien atea. Garapen Agentziak paper handiagoa izan behar du eskualde mailako proiektuen inguruko informazioa herritarrei transmititzen.

- Herritarren parte hartzea eta inplikazioa handitzea lortu behar da.
- Adibideak behar dira herritarrek kokatzeko (zer egin daitekeen, zer ez...). Datorren urtean aurtengo proposamenetan oinarritu adibideak.

Hauek dira Talde Eragilean ondoen balioetsitako prozesuko alderdiak:

- Prozesuaren kronograma orokorra, baina agian udako etena saihestuz.
- Esku-orrien banaketarekin Tolosaldeko etxe guztietara iritsi izana.
- Prozesuan zehar e-mailez herritarrek jaso duten informazioa.
- Alkateek prozesuaren hasieran egindako agerraldia (prentsaurrekoa).
- Aldundiaren publizitate kanpaina zabala.
- Herritarrek prozesu osoan zehar parte hartzeko izan duten aukera.
- Aurrekontuekin proiektu zehatzak aurrera ateratzeko aukera bistaratu izana.
- Prozesua akordioetara iristen ikasteko ikasgaia bihurtu izana.

UDALEN BALORAZIOA

Partaidetzazko prozesua zeharka bizi izan dute udalek eta bere ordezkari politikoeak. Informazioa etengabe jaso dute baina parte hartzearen protagonismoa herritarrek izan dute. Lehen urtea izan da eta udalek zein parte hartze izan behar duten ez da argi geratu. Kontu horren bueltakoak dira udal ordezkariengandik jasotako iritzi asko.

Berrobin 2014ko azaroaren 26an egindako bileran udalek prozesuaren balorazioa egin zuten eta hauek izan ziren datorren urtera begira hobetzeko identifikatu zituzten puntu nabarmenenak:

- Lehenago eskualdearen egoeraren gaineko informazioa ematea interesgarria litzateke bai herritarrei zein GFARI. Eskualde mailako beharrak herritarrei transmititu egin behar zaie; gaur egun ez dagoen eskualde ikuspegia garatzeko ere balio behar du parte hartze prozesuak
- Tailerrak azpieskualdeka egin baino, hobe esfortzua handitu eta herri bakoitzean egitea.
- Garapen Agentziaren eta eskualde mailako bestelako erakundeen parte hartzea handitu behar da. Ondo legoke, udal zein eskualde mailako erakundeen artean prozesuaren jarraipena egiteko koordinazio mahai bat egotea, emango diren desorekak eta lobbyak kudeatu eta informazio trukaketaren bidez prozesua bideratzeko.
- Soilik eskualde ikuspegia duten ideiei ireki behar zaie atea eta hori prozesuko metodologiak bermatu behar du.
- Prozesuaren filosofia ezbaian jarri behar da. “500.000 euro zuk nahi dezuna egiteko” premisa parte hartzea gaizki ulertzea da: lehenik, herritarrek esan beharko dute zer behar identifikatzen dituzten; bigarrenik, aukeraketa; hirugarrenik, ikusiko da 300 mila, 500 mila edo 1 milioi behar den.
- Herritarrek hasieran gehiago zentrarazi behar ditugu: adibideak jarri eman daitezkeen eta eman ezin daitezkeen ideien inguruan, eskualde mailako udalen egitasmoen berri eman...

Hauek dira Talde Eragilean ondoen balioetsitako prozesuko alderdiak:

- Kronograma egokia da, aurrekontua prestatzeko garaiz ibiltzeko modukoa eta herrietako prozesuak estali gabe.
- Etxe guztietara esku-orriak helarazi izana.
- Prozesuaren barruan egon direnek jaso duten etengabeko informazioa.
- Hautetsiek prozesuan zehar izan duten inplikazioa.
- Proiektu zehatzen defendatzaile herritarrek eurak ibili izana.

UROLA ERDIA

HERRITARREN BALORAZIOA

Herritarrek prozesuaren inguruan duten gogobetetze maila ezagutu asmoz, proposamenen aukeraketa egiteko burutu zen eskualdeko bileran parte hartzaile guztiei inkesta bana betetzeko eskatu zitzaien, bertan arlo desberdinen inguruko balorazioa jaso zelarik. Jasotako inkesta guztien artean, 18 soilik hartu dira kontuan, hauek izan baitira gutxienez bi bileretara etorri direnak eta bi bilera horietatik bat lehenengo fasekoa:

GAIARI BURUZKO INTERESA	
Aurrekontu parte-hartzaileen inguruko interesa	7,6
Espektatiben betetze-maila	5,0
AZALPENAK EMAN ETA DINAMIZAZIO EGIN DUTEN PERTSONEN BALORAZIOA	
Aurkezpenen argitasuna	7,7
Taldearekin elkar eragiteko gaitasuna	7,5
Ideiak eta ekarpenak egituratzeko gaitasuna	7,4
PROZESUAREN BALORAZIOA	
Proiektuaren inguruan jasotako informazioa (deialdiak, berriak, eskuorriak, kartelak,...)	7,1
Ekarpenak egiteko erraztasuna (bilerak, postontziak, webgunea,...)	7,7
Lehenetsitako proiektuen inguruan jasotako balorazio teknikoa	7,2

Oharretan jasotako iruzkinen artean, gehienak herri txikien izaera eta behar espezifikoak kontu handiagorekin hartzeari buruzkoak izan dira.

TALDE SUSTATZAILEAREN BALORAZIOA

	Nabarmentzeko (positiboa) <i>A destacar (positivo)</i>	Hobetzeko (negatiboa) <i>A mejorar (negativo)</i>	Proposamenak <i>Propuestas / Observaciones</i>
Denborak <i>Tiempos</i>	Egokia		Aurten jarraitutako egutegia, esperientzia pilotuan jarraitutakoa baino egokiagoa izan dela aipatu da.
Aurretiko informazioa <i>Información previa</i>	Egokia		
Prozesuan zehar, informazioa <i>Información durante el proceso</i>	Egokia		Edozein kasutan, Aldundiko teknikariak, Talde Sustatzailearen bileran baino, interesgarria izango zela herritar guztiei irekitako bilera batean parte hartzea komentatu da.
Iragarpena eta zabalkundea <i>Publicidad y difusión</i>	Egokia		
Partaidetzarako bide eta mekanismoak eta proposamenen jasotzea <i>Canales y mecanismos de participación y recogida de propuestas</i>		Hobetzeke	Prozesuan, herri txikiek desabantaila batzuekin parte hartu dutela aipatu da, eta beraien eskaera eta proposamenek kontsiderazio handiagoa izan dezaten, metodologikoki aldaketa batzuk egitea eskatu da.
Administrazio ezberdinen inplikazio instituzionala <i>Implicación institucional de las distintas Administraciones</i>		Hobetzeke	Udaletako politikariek prozesuan ez parte hartzea aipatu da eta beraien partaidetzarako berariazko espazioa egokitzea.
Talde Eragilearen funtzio eta funtzionamendua <i>Funciones y funcionamiento del Grupo Motor</i>	Egokia		Talde Sustatzailearen lan-esparrua oso positiboki baloratu da, zeinetan errealitate ezberdinak ordezkatuta egon diren eta elkar ulertze egokia egon den. Baina ez dira udalerri guztietako pertsonak egon; Beizama eta Zestoako ordezkariak bakarrik lehenengo bileran egon baitziren.
Proiektuaren erabilgarritasuna <i>Utilidad del proyecto</i>	Egokia		Proiektua oso erabilgarria izan dela uste da eta beste era batera funtzionatzeko aukera paregabea dela.
Ikasitakoak <i>Aprendizajes</i>			Oraindik, asko geratzen da benetako eskualdeko ikuspegia lortzeko, baina horrelako proiektuek elkarren artean ulertzeko eta ezagutzeko balio dute, bereziki udalerri txiki eta handien artean.
Besteak OTROS			Aurreko urtean hautatutako proiektuen bisualizazio falta. Agian honek herritarrek proiektuan izandako partaidetza eta inplikazioa indartuko zuen.

UDALEN BALORAZIOA

	A destacar (positivo)	A mejorar (negativo)	Propuestas
Tiempo	Positiboki baloratu da aurtengo egutegia, batez ere udal aurrekontu parte-hartzaileak egiten dituzten udalerrien artean, prozesuak ez direlako solapatu eta bakoitzak bere eremua izaten ahalbidetu duelako.		
Información previa		Batzuetan informazioa berandu iritsi da eta komunikazioa ezin da behar bezala egin. Aurreko urteko proiektuen egoerari buruzko informazioa faltan bota izan da, batez ere prozesuaren hasieran. Inportantea da emaitzak ahalik eta azkarren ikusgai egotea.	
Información durante el proceso		Lehenetsitako egitasmoen inguruko informazio gehiagoko eskaera egiten da. Hala ere, iritsi hau pertsona bakar batena da eta gainontzeko udal eragileek ez dute hau hobetu beharreko gai bat bezala ikusten.	
Coordinación interinstitucional (con otras Administraciones)		Udal eta Foru Aldundiaren arteko koordinazio gutxi egon da. Udalek, orokorrean, ez dute proiektua bere egin.	
El papel de los Ayuntamientos	Logistika kontuetan eta prozesua errazteari dagokionez, balorazioa positiboa izan da.	Politikariek ez lukete tailerretan parte hartu behar (guztiok ados daude).	Politikarien parte-hartzea bideratzeko eremu zehatz bat planet
Participación ciudadana		Oportunismoa eta interes partikularrak saihesteko bideak hausnartu behar dira eta, metodologikoki, prozesuan aldaketak sartu beharko lirateke. Herri txikien ordezkariak beraiekiko sentsibilizazio gehiago eta lurralde oreka bermatzeko neurriak eskatzen dituzte.	Tailerrak mantendu behar dira baina parte-hartzea areagotzeko formula osagarriak bilatu behar dira. Herritarrek ez badute proposatzen (informazio faltagatik) udalek ere guztion onurarako izan daitezkeen proiektuak ere mahai gainean jarri beharko lituzkete.
Otros	Ez dago eskualdeko ikuspegia, ez herritarren artean, ez udal eragileen artean. Landu beharreko kontu bat da. Udal txikiak oinarritzko behar batzuk ase gabe dituzte eta ekimen honek horretarako aukerak ematen ditu. Hala ere, Foru Aldundiak jarraipena eskatzen duten proiektuekin zer egin baloratu beharko luke, herritarrengan frustaziorik ez sortzearen.		

2014an zehar, partaidetzazko aurrekontuen prozesuan parte hartu duten teknikariekin ebaluazio-saio bat egin da. Honako gaiak ebaluatu dira: denborak; hasieran eta prozesuan zehar emandako informazioa; sail eta instituzioen arteko koordinazioa; teknikarien papera; herritarren proposamenak; eta txosten teknikoak.

Denborak:

Maneiatutako denborei dagokionez, udan geldialdi bat dagoela aipatu da, baina dauden geldialdiak beharrezkoak direla azpimarratu da eta ezin direla txikitu.

Hasieran eta prozesuan zehar emandako informazioa:

Beraiek egoki informatuta egon direla onartu badute ere, partaidetzazko aurrekontuen inguruko ez-ezagutza sumatu dute udal batzuen kasuan.

Sail eta instituzioen arteko koordinazioa:

Aldundi barruko koordinazioa hobekuntza batzuk eman diren arren, oraindik gehiago hobetu daitekeela pentsatzen da, zenbait konpetentzia sail ezberdinengatik konpartituak direlako eta elkarlan handiagoa behar dutelako.

Beste instituzioekin izan beharreko koordinazioari dagokionez, udalei Aldundiak urtero udalerrri eta eskualdetan exekututuko dituen proiektuen inguruko informazioa ematea proposatzen da.

Prozesuan zehar landu diren proposamenen zehaztasuna jorratzeko eskualdeko aholkularitza-ekipoekin egindako koordinazio-bilerak positiboki baloratu dira.

Teknikarien papera:

Proposamenen zehaztasunerako lana Aldundiko teknikarien lana bakarrik ez duela izan behar pentsatzen dute; baizik eta udaletako zenbait teknikari nahiz aholkularitzekin batera egin beharreko lana izan behar duela.

Herritarren proposamenak eta txosten teknikoak:

Proposamen batzuk epe motzean martxan jarri ezin direnez, aurrekontuetan exekuzio-maila ezberdineko proposamenak bereizteko aukera kontuan izatea proposatzen da: epe motzeko proposamenak, epe erdikoak eta epe luzekoak.

Halaber, proposamenak nahikoa babes soziala izan behar dutela azpimarratu da, baita udalen inplikazioa ere.

“HERRITARREKIN” KOORDINAZIO-TALDEAREN BALORAZIOA

Herritarrekin Sareko ordezkariekin ebaluazio-bilera bat egin da, eta bertan, 2014an partaidetzazko aurrekontuen prozesuak izandako funtzionamenduaz informatu da, baita asistentzia teknikoak aholkularitzak eta Aldundiarekin egindako ebaluazioan ateratako ondorio nagusien berri eman ere.

Bilerara gerturatu ziren Herritarrekin Sareko ordezkariak, etorkizunean, eskualde berrietan prozesua martxan jartzeko aholku batzuk eman dituzte eta prozesuaren inguruko galdera batzuk egin ere.

Lehenik eta behin, Aldundiko partaidetzazko aurrekontuetan sar daitezkeen proposamenak foru-konpetentzia izan eta eskualdeko orientazioa eduki behar dutela azaldu behar zaiela herritarrei azpimarratu dute.

Eskualde ezberdinetan, garapen agentziak inplikatzeari ezinbestekoa dela nabarmendu dute, beraien proposamenak jasotzeko; beraiek baitute eskualdeko ikuspegi integrala eta askotan aurrekonturik ez baitute beraien proposamenak aurrera eramateko. Era horretan, garapen agentziek herritarrek zein bestelako administrazioek aurkezten dituzten proposamenekin batera proiektuak aurkez ditzakete, ondoren, partaidetzazko aurrekontuen barruan sartu ala ez erabakitzeko garaian herritarren baloratzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, bilerako partaideek mahai gainean jarri zuten ezinezkoa dela bestelako udal prozesu parte-hartzaile bat martxan jarri, Aldundiko partaidetzazko aurrekontuen prozesua martxan dagoela. Honela bada, eskualdeko udalek zonaldeko ikuspegia duten nahiz udalerriz gaindikoak diren proposamenak adostu eta prozesu honetan aurkeztu beharko lituzketela pentsatzen dute, herritarrek Aldundiko partaidetzazko aurrekontuetan sartu ala ez baloratu ahal izateko. Laburtuz, herritarrek baloratzeko, garapen agentziek nahiz udalek (beraiek arteko adostasuna dela medio) egindako eskualdeko ikuspegia duten egitasmo, plan eta proiektuak jasotzeko aukeraz ari dira. Hau da, herritarren egindako proposamenekin batera (eta horietan aurten aurrekontuan sartu ezin izan direnak, baina lehenetsi zirenak sar daitezke), udalek eta garapen agentziak egindakoak batuko dira, eta herritarrak izango da oraingoan

lehenetsiko liratekeen proposamenak hautatuko dituztenak. Era horretan, udalak ere prozesuan inplikatu lirateke eta partaidetzarako espazioa izango lukete.

Eta azkenik, Herritarrekin Sareko kideak bat etorri dira datorren urtean prozesua Gipuzkoako eskualde guztietara (Donostiako udalerria izan ezik) zabaltzeko aukerarekin, jadanik prozesuak bi urteko heldutasuna daukalako eta momentu egokia izango zelako probintzia-mailara zabaltzeko.

6. GEHIGARRIAX

ACTA REUNIÓN DE COORDINACIÓN PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

4 de abril de 2014

Asistentes:

- Arantza (Responsable de Participación Ciudadana, Diputación Foral)
- Aitziber (Departamento de Presupuestos, Diputación Foral)
- Cristina (Responsable de Comunicación, Diputación Foral)
- Ana y Eider (ENEA)
- Izar (EMUN)
- Jone, María y Aritz (FARAPI)
- Jon (ELHUYAR)
- Néstor y Roberto (CIMAS)

1-Valoración de las sesiones informativas:

Se informa sobre el desarrollo de las sesiones informativas en cada una de las Comarcas. Se da cuenta de la ausencia de dos de los cuatro Ayuntamientos de Oarsoalde y de la ausencia de representantes del equipo de gobierno de los dos Ayuntamientos de Bidasoalde. Por su parte, en Tolosaldea se decidió dividir la Comarca en 6 o 7 grupos de municipios, aunque su resolución definitiva quedaba a expensas de concreción con los propios Ayuntamientos.

También se informa de la sesión con los grupos políticos de las Juntas Generales, a la que asistieron representantes de Aralar, PNV y Bildu. Se comenta que se ha propuesto mantener una reunión con los grupos que no asistieron (PP y PSOE). Por último, se informa de la sesión celebrada con los técnicos/as de la Diputación, a la que asistieron representantes de 8 Departamentos.

2-Comunicación y difusión:

Se informa sobre la campaña de difusión pública de los presupuestos participativos, tanto a través de cartelería y folletos como de la página web.

Se acuerda establecer el plazo de recogida de propuestas ciudadanas a través de la web y de los formularios en los buzones de sugerencias del 28 de abril al 18 de mayo.

Se acuerda realizar una base de datos de contactos de las personas que participen en los talleres, asambleas y a través de la recogida de propuestas online y en buzones. Desde Comunicación se enviará una ficha-modelo similar para todas las Comarcas.

Se establece el 29 de mayo como fecha final para el envío al Departamento de Comunicación de las propuestas ciudadanas de cada Comarca.

